



ZERAINGO

errotekaria

2016

Non duzu gogoia?

Buruan darabilzuna edozer izanda ere, kontsulta ezazu Kutxabanken. Behar duzunerako mailegu pertsonalak.





Urte berri batekin batera, bertan dugu zeraindar orok aurtengo urtekaria, argitaratu den hogeita bederatzigarrena izanik.

Adierazi bezala, urtekariko ale honetatik aurrera, urtea hasieratik amaiera arte bildu nahi izan dugu ale bakoitzean. Horregatik, ale honek, 2015.urtearen irala-abendua biltzeaz gain 2016. urtea osotasunean ere bilduko ditu. Hau eginik, hemendik aurrera urtekari bakoitza urtearekin bat etorriko da.

Liburuxka honek zeraindarrok bizi izan ditugun gertakari nahiz ekarpenak biltzen ditu. Haur, gazte zein helduek eskeini duena biltzeko jardunean ibili gara urtekariko taldea, eta horrela, auzolanean eginiko emaitza bat lortu dugu. Honexegatik, eta herriko memoria biltzeagatik da garrantzitsua honelako proiektuak aurrera eramatea.

Urtekarian, ohikoez gain, eduki berriak ere izango dira: elkarrizketa, urteko ekintzak, zeraindarrok munduan, kolaborazioak eta haur eta gazteen txokoa. Denon artean eta denontzat eginik.

Joan den urtean bezala, ale hau Zeraingo etxe orotan jasoko da, baita ere, hainbat erakundeetan eta eskuragarri izango da urte osoan zehar. Honela, zeraindar orok bezala, jende gehiagok izango du herri txiki honen berri. Gabonetako oporrak aprobetxatu beraz urtean zehar egindako gauzak gogoratzeko edo istorio berriak irakurtzeko.

Amaitzeko eskerrak eman behar dizkizuegu ale hau argitaratzeko lanean aritu zaretenoi, kolaboratzaileei eta babesleei. Nola ez, zuen ekarpenak egin dituzuenoi eta aurtan ausartu ez den orok hurrengo urtean idaztera animaten zaituztegu.

Bitartean ondo izan guztiak! Urte berri on!

BABESLEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia

Elkarriketa

OLABIDEKO MARIA ANGELES IÑURRATEGI	6
------------------------------------	---

Gure gaia

ZERAIN DARROK MUNDUAN	12
-----------------------	----

Urteko ekintzak

EKINTZAK ETA AIPAGARRIAK	16
--------------------------	----

Xaguarlean

10 URTE	36
---------	----

Gabonak

2016	38
------	----

Kolaborazioak

BASARTE GURASO ELKARTEA	44
ZERAIN GORA ETA BEHERA... HAINBAT GOGOETA	46
EUSKAL HERRITIK KANPO URTE BETEZ	50

Gazteak sortzaile

IZAR FORONI	51
AIZPEA ELORTZA	52
ENARA AIZPEOLEA	53
LUR ELORTZA	53
UXUE SAEZ DE EGILAZ	54

EGILEA

Oa Kultur Elkartea
Urtekariko lan taldea

AZALA

Izar Foroni Ruiz de Larrinagak egina
da, urtekariko azalaren lehen
leihaketako irabazlea.

MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA

Antza komunikazio grafikoa

LEGE GORDAILUA

SS-724-1996



Zerainen sortu, Zerainen lan eta bizi: Olabideko Maria Angeles Iñurrategi

Olabide txikin jaioa da Maria Angeles Iñurrategi (Zerain, 1962) Aitaren aldeko aitona Tellaetxekoa zen eta amona Olabidekoa, Bedaiora joan ziren lan kontuak tarteko eta bere aita izango zena Bedaion jaio zen baina oso txikitatik osaba izebek hazi zuten Olabide baserrian. Ama berriz, Lizartzakoa zen, eta aitak Zerainen bertan ezagutu zuen Jauregira neskame etorri zenean. Erraza da Maria Angeles herritik gora eta behera aurkitzea ardiekin eta txakurrarekin. Zerainen bizi da

eta Zerainen lan egiten du, Idiazabal gaztak ekoitziz familiaren gaztandegian.

Zeraingo eskolan ikasitakoa zara, zer gogoratzen duzu haurtzaroaz, ikasle garaiaz? Zenbat haur zineten eskolan? Eta kintakoak?

Bai, herriko eskolan ikasi nuen 12 bat urte bete nituen arte, orduan erabaki baitzuten Zeraingo eta Mutiloako eskolak ixtea. Zaharrenak Zegamara eta gazteenak Segurara joan ginen. Ze-

rainen 5-14 urte bitarteko haur guztiak batera ikasten genuen irakasle bakarrarekin. Talde handia zen bakar batentzat eta mutilak eta neskak batera ibiltzen ginen. Gaur egun aterpetxea dagoen eraikina zen orduan eskola berria. Eskolan ikasi genuen ondo edo gaizki gaztelaniaz hitz egiten. Zigorrez asko gogoratzen naiz, eskuetan reglarekin jotzen ziguten, patioan belauniko jarri arazten ziguten edo behin eta berriro esaldi bat idatzarazi koadernoan, horrela lortzen zuen maistrak gu guztiok gobernatzea. Nire kintakoak bost ginen mutik bat eta lau neska, ni bakarrik bizi naiz Zerainen. Nik 15 urte arte ikasi nuen.

Gaztaroan nola dibertitzen zineten herriko gazteak? Zeintzuk ziren zenituzten denborapasak?

Hamalau urtera arte edo... herrian bertan irteten ginen lagunak, Herreronen eta Marianen goxokiak erosten genituen as-teburuan eta plazan eta eliz atariko koadrotan txingoan jolas-ten genuen eta plazan soka saltoan eta gomarekin ibiltzen ginen. Zinera joatea asko gustatzen zitzaigun eta Zegamara

joaten ginen sarri. Oinez Zubiberrira jaitsi eta autobusez Zegamaraino. Bueltatzerakoan berdina egiten genuen, Zubiberrira autobusez joan eta bertatik oinez etxera. Geroxeago, nagusiagoak ginenean Beasainera joaten ginen zinera eguraldi txarrarekin eta orduan jarri zen modan Egan taldea eta herriz herri Eganen atzetik ibiltzen ginen dantza egitea atsegin genuen eta.

Laster ospatuko ditugu Gabonak, nola ospatzen ziren Gabonak herrian zu txikia/gaztea zinelarik?

Orain bezala Olentzerorik ez zen ospatzen plazan, talde txikietan abestera irteten ginen baserriz baserri, oinez hori bai! Goxokiak eta dirua ematen ziguten.

Beti bizi izan al zara Zerainen? Zergatik?

Beti bizi izan naiz herrian, hala tokatu zait, 19 urte nituela aita hil zitzaidan, eta ama eta biok bakarrik geratu ginen baserrian. Esne behiak genituen eta amari laguntzen nion.



CONSTRUCCIONES EXCAVACIONES
ITURRIOZ S.A.
 Polígono Eziolaza 24-B
 943 18 75 56 Idiazabal



GALDERAK LABURREAN:

Abeslari bat: Benito Lertxundi

Janari bat: bakailaoa saltsan

Edari bat: sagardoa

Animalia bat: arkumea

Lore bat: alegria

Zuhaitz bat: Gorostia

Kolore bat: berdea

Euskal Herriko herri bat: Zerain

Munduko herrialde bat: Suitza

Itsaso bat: Kantauri itsasoa Zumaian

Hizkuntza bat: euskara

Ametz bat: osasuna izatea eta ez sufritzea

Zer da gehien gustatzen zaizuna Zeraindik? Eta gutxien? Asko aldatu al da herriaren itxura? Eta giroa, bizitzeko modua?

Gehien gustatzen zaidana lasaitasuna da, hemen lasai bizi garela, alegia. Gutxien edozertarako mugitu egin behar duzula, gauzak ez ditugulako eskura baina egia da, horrela ohitu garela eta lehen aipatutako lasaitasunak konpentsatu egiten duela dena kontuan hartuta. Kaskoa erabat aldatu da, lehen ia ez zegoen etxerik plaza inguruan. Asko aldatu den beste inguru bat Hirukate da, Barbari eta Aizpea berriz gutxiago esango nuke. Giroari dagokionez, orain bakoitzak bere bizitza egiten du. Lehen harreman handiagoa izaten zen gertu bizi zirenekin, gure kasuan Herrerone eta Ostatu aldera jotzen genuen bertan behar genituenak eskuratzen genituen eta. Adibidez ogia. Asteazkenetan Ordiziako azokara jotzen ginen asteko erosketak egitera eta bide batez untxiak, arrautzak, intxaurrak edo gaztainak saltzen genituen han. Laguntasuna zegoen auzokoen artean eta baserriko zenbait lanetarako laguntza izaten genuen, adibidez behiak umea egiten zuenean.



Eta lan beti egin al duzu lan herrian? Herrian lan eta bizi. Beti lehen sektorean? Zergatik? Imajinatzen al zenuen duela 30 urte horrela izango zenik? Nola sortu zen gaztandegia?

Bizimoduak horretara eraman nau, ez nuen egun batean hori horrela izango zela erabaki. Lehen esan bezala gazte hasi nintzen baserriko lanetan eta ezkondu nintzenen senarrak ardiak zituenek Idiazabalgo baserrian behiekin eta ardiekin, biekin, aritu ginen. Baina garai hartan esnearen arazoak hasi ziren eta zailtasunak ikusita behiak kendu eta ardiekin bakarrik jarraitzea erabaki genuen. Ordura arte Idiazabalgo baserrian gaztak egin egiten genituen baina ez askorik. Urteekin gauzak aldatzen joan dira eta erregistro sanitarioa lortzeko gaztandegia egiteko premia sortu zitzaigun. Eta halaxe egin genuen, eta gauza batek bestea dakar, inbertsio handiagoak egiterakoan, hazteko beharra izan genuen inbertsioei buelta emateko, ardi gehiago jarritz. Azoketan parte hartzen hasi ginen, baina azoka berezietan bakarrik, kanpora ere bai, adibidez Seo de Urgellera duela 20 bat urte joaten garel.

2004ean partzoneroak izateagatik Urbian txabola lortu genuen eta ardiak bertara igotzen hasi ginen. Ardientzat oso ona da mendian egotea, ardiek mendia behar dute ondo egoteko, ondo hazteko. Garai horretan senarrak lantegiko lana uztea erabaki zuen eta biok batera gaztandegia aurrera ateratzeko apustua egin genuen.

Nola ikusten duzu lehen sektoreak egin duen ibilbidea? Asko aldatu al da lana bera, egoera? Zertan lagundu beharko lukete erakunde publikoak?

Lehen sektorea asko aldatu da, asko. Batez ere lan egiteko modua. Lehen belar metak eskuz egiten genituen eta orain makinarekin bolak, hori bezala beste gauza asko ere. Teknologiak lagundu eta erraztu digu eguneroko lana. Gertatzen dena da horrek ere beste ikuspegi bat baduela, alegia, lehen egiten ez genituen inbertsioak egiteko beharra dugula orain, inbertsio handiak. Behin inbertsioak eginda beharra dago lan gehiago jartzeko geure buruari, animalia gehiago, produkzio gehiago egindako inbertsioak errentagarriak izateko. Bide horretan erakunde publikoek ematen dituen diru laguntza garrantzitsua da, beharrezkoa baina gaur izan dezakezu eta bihar ez. Horregatik niretzat garrantzitsuena da ekoizten ditugun produktuak, gure kasuan, gazta, ondo ordainduta egotea eta produktua bera saltzeagatik bideragarria izatea baserriarren lana.

Nola ikusten duzu etorkizuna? Atzetik datozenek eutsiko ote diote jarduerari?

Gaur eguneko ereduarekin desagertuta ikusten dut, hau da, baserriko lanean orduak ez daukazu beste lanetan bezala, ardiek egunero jaten dute, egunero jaitzi behar dira...

Gazteak baserriari eusteko beste modu batean antolatu beharko dira, beste baldintza batzuk nahi dituzte eta horri buelta bat eman beharko diote, horrela bai, aurrerabidea izan dezake lehen sektoreak.

Animatuko al zenituzke emakume gazteak lehen sektorean lan egitera? Zer mezurekin? Zer esango zenieke?

Neroni mundu hau asko gustatzen zait, asko gustatzen zait mendia, natura, animaliak...uste dut hori dena gustukoa izanda lanbide hau oso polita dela. Oso barrutik sentitzen baduzu, aurrera!! Oso garrantzitsua da bizitzan motibazioa edukitzea eta lanean zer esanik ez.



OLABIDE BASERRIA

Olalde baserria izan da hainbat mendetan Zerain udalerriko jatorrizko hamar oinetxeetako bat. Baserriaren jabetzakoak diren lurak murriztuz joan dira mendeak aurrera egin ahala, izan ere, tradizioak dienez Zeraingo udaletxea bera ere Olalde baserriaren lurretan eraiki zen.

Beheko oina eta lehenengo oina ditu, baita lehortegi edo ganbara estua ere, teilatuaren bizkarraren lerroaren azpian. Espazio hori bi "idibegi" edo leiho zirkularren bidez aireztatzen da. Estalkia bi isuri asimetrikoak da, pinoian agertzen den petral bikoitza duela. Horrek erakusten digu antzina dolare baserria izan zela, Igartubeiti baserria bezala.

Olaliden historia ezagutzeko 1384 urtera joan behar dugu, nahiz eta gaur egun duen egiturako elementurik zaharrenak XVI. mendeak diren. Gure herriko ondare garrantzitsua da Olalde baserria. (Euskal Herriko baserriaren arkitektura liburutik)



ALDABE ZERBITZU TURISTIKOAK

Zerain Paisaia Kulturala

- Informazio bulegoa
- Aterpetxea
- Ikastetxe eta familientzako egonaldiak eta udalekuak
- Tailerrak eta erakusketak
- Bisita gidatuak
 - Meategiak
 - Museoa
 - Zerrategia
 - etab.

www.aldabe.com

Tel: 943 801 505

turismobulegoa@zerain.com

MANDIO TABERNA

Tel: 943 801 705





Maria Angelesen alaba, Olatz Aranburu (1991)

Lehen sektorean lanean ari zara ikasketak amaitu ondoren, zergatik aukeratu zenituen lehen sektorearekin lotutako ikasketak eta lana?

Txikitatik etxean animalia artean hazi naiz eta 8 bat urtera arte asko gustatzen zitzaidan ardiekin ibiltzea. Gero, nerabezaroa tarteko, geroz eta gutxiago joaten hasi nintzen eta ikasketekin aurrera jarraitu ahala joateari utzi nion. Unibertsitatean hasterakoan ez nekien ziur zer ikasi, ekonomia eta administrazioa arloak orduan gustuko nituen. Halako batean jakin nuen Iruñeko Unibertsitate Publikoan Nekazaritza Ingeniaritzako ikasketak zeudela, eta natura eta animaliak gustuko ditudanez aukera on bat izan zitekeela iruditu zitzaidan.

Martxoan masterreko proiektua gaztandegian egitea erabaki nuen eta orduan hasi nintzen geroz eta

gehiago familiako gaztandegian lan egiten. Jende asko etortzen da gazta erosi eta baita bisita gidatuak egitera ere. Gustuko dut jendearekin egotea eta beraiei gazta nola egiten den erakustea.

Zure ibilbide profesionalean lehen urratsak ematen ari zara; zer moduz doakizu? Nola ikusten duzu? Nola imajinatzen duzu 30 urte barru?

Lehen esan bezala niretzat aukera handia da etxean gaztandegi bat jadanik martxan edukitzea, ez baitut zerotik hasi beharrik. Oraingoaz gustura nago, gaztandegiko lana eta ardiena oso ezberdinak dira, eta nik aukeran jarrita nahiago dut hemengo, gaztandegikoa. Gaztea naiz oraindik eta proiektu ezberdinak ere baditut buruan, baina dena ikusi egin behar. 30 urte barru ez dut baztertzen gurasoek hasi duten lanarekin jarraitzea, pena baita hau dena amaitzea.

Zeraindarrok munduan



Zerain herri txiki bat dela jakina da, une honetan 250 bat lagunek osatzen dugu eta hala ere zeraindarrok munduaren zati handi batean izan gara. Oinez, bizikletaz, autoz, itsasontziz edo hegazkinez heldu, inoiz pentsa ez zenezaketen helmuge-

tara helduak gara zeraindarrak. Honela, herritarrok eskaintako informazioarekin mapa hau osatu dugu eta bertan argi ikusten da herri txiki batetik hasita noraino heldu garen. Txikitik handira.

Hobetzeko grina
Konpromisoa
Ahalegina
Ilusioa

AMPO
Commitment made of steel

... gure eragile

EUROPA:

Europa kontinente gertukoena da zeraindarrontzat, bertan dago eta Zerain, eta horregatik da bisitatuena ere. Herrialde gutxi gelditu dira bertan zeraindarron bisitarik jaso gabe, hala ere, gutxi batzuk badaude oraindik, 11 guztira. 30 herrialde ezagutzen ditugu denon artean edo gehiago?

	Albaniako Errepublika	?
✓	Alemaniko Errepublika Federala	
✓	Andorrako Printzerria	
	Armeniako Errepublika (*)	
✓	Austriako Errepublika	
	Azerbaijandar Errepublika(*)	
✓	Belgikako Erresuma	
	Bielorrusiako Errepublika	?
✓	Bosnia eta Herzegovinako Errepublika	
	Bulgariako Errepublika	?
✓	Danimarkako Erresuma	
✓	Erresuma Batua	
✓	Errumania	
	Errusiar Federakundea (*)	
✓	Eslovakiar Errepublika	
✓	Esloveniako Errepublika	
✓	Espainiako Erresuma	
	Estoniako Errepublika	?
✓	Finlandiako Errepublika (Suomi)	
✓	Frantziako Errepublika	
	Georgiako Errepublika (*)	
✓	Heleniar Errepublika	
✓	Hungariako Errepublika	
✓	Irlandako Errepublika (EIRE)	

	Islandiako Errepublika	?
✓	Italiako Errepublika	
	Kazakhstan (*)	
	Kosovoko Errepublika	?
✓	Kroaziako Errepublika	
	Letoniako Errepublika	?
✓	Liechtensteingo Printzerria	
✓	Lituaniako Errepublika	
✓	Luxenburgoko Dukerri Handia	
✓	Maltako Errepublika	
✓	Mazedoniako Errepublika	
	Moldaviako Errepublika	?
✓	Monakoko Printzerria	
✓	Montenegroko Errepublika	
✓	Norvegiako Erresuma	
✓	Poloniako Errepublika	
✓	Portugalgo Errepublika	
	Serbiako Errepublika	?
	Suediako Erresuma	?
✓	Suitzar Konfederakundea	
	Turkia (*)	
	Ukrania	?
✓	Vatikano Hiriko Estatua	
	Zipreko Errepublika (*)	
(*) Euro - Asiako estatuak: Asian sartuta		






Elektrikariak - Koop. E.

943 800 000

Era guztietako argi lanak etxe eta lantegietan- Led argiztapena
Telekomunikazioak- Iberdrola Puntua- Aholkularitza Energetikoa

Tfnoa: 943 800000
Faxa: 943 801826
www.aizkorpe.com

Goardiako Industriegunea 14 -1. Aldea
20213 IDIAZABAL - Gipuzkoa
aizkorpe@aizkorpe.com

AMERIKA:

Zerrendan hurrengo Amerika da, itsasoaren bestaldean egonagatik oso bisitatu izan dena, bertan bizitzen, lanean nahiz oporretan izan gara zeraindarrak. Honetan ere, herrialde gutxi dira, geure datuen arabera, bertan zeraindarrik izan ez direnak, Kari-bekoak batez ere, bertan herrialde txiki asko daude eta horregatik, asko falta dira, guztira 13. 18 herrialde ezagutzen ditugu denon artean edo gehiago? Inor egon al da Kanadan adibidez?

✓	Ameriketako Estatu Batuak	
	Antigua eta Barbuda	?
✓	Argentinako Errepublika	
	Bahametako Commonwealth	?
	Barbados	?
	Belize	?
✓	Boliviako Errepublika	
✓	Brasilgo Errepublika	
✓	Costa Ricako Errepublika	
	Dominikako Commonwealth	?
✓	Santo Domingo	
✓	Ekuadorko Errepublika	
✓	El Salvadorko Errepublika	
	Grenada	?
✓	Guatemalako Errepublika	
	Guyana	?
	Haitiko Errepublika	?
✓	Hondurasko Errepublika	
	Jamaika	?
✓	Kolonbiako Errepublika	
✓	Kubako Errepublika	
✓	Mexikoko Estatu Batuak	
✓	Nikaraguako Errepublika	
✓	Panamako Errepublika	
	Paraguaiko Errepublika	?
✓	Peruko Errepublika	
	Puerto Ricoko Estatu Libre Elkartua	?
	Surinamgo Errepublika	?
	Trinidad eta Tobagoko Errepublika	?
✓	Uruguako Ekialdeko Errepublika	
✓	Venezuelako Errepublika	

ASIA:

Asiak brontzezko domina lortu du, bere kultura bereziak erakarrira bisita ugari jaso baititu. Exotikoa da Asia dudarik gabe eta biztanleria kontuan hartuz gero handiena. Aipagarria da kontinente honetako herrialde asko lanagatik bisitatu ohi izaten ditugula. 12 herrialde ezagutzen ditugu denon artean eta 46 dira ezagutzen ez ditugunak. 12 dira edo gehiago?

	Afganistango Estatu Islamiarra	?
	Arabiar Emirerri	?
	Armeniako Errepublika (*)	?
	Azerbaijandar Errepublika (*)	?
	Bahreingo Estatuak	?
✓	Bangladeshko Herri Errepublika	
	Bhutango Erresuma	?
	Bruneiko Estatuak, Bakearen Egoitza	?
	Filipinetako Errepublika	?
	Georgiako Errepublika (*)	?
✓	Indiako Errepublika	
✓	Indonesiako Errepublika	
	Irakeko Errepublika	?
	Irango Errepublika Islamiarra	?
	Israelgo Estatuak	?
	Japonia	?
	Jordaniako Haxemi Erresuma	?
	Kanbodiako Erresuma	?
	Kazakhstango Errepublika (*)	?
	Kirgiztar Errepublika	?
	Koreako Herri Errepublika Demokr.	?
✓	Koreako Errepublika	
	Kuwaiteko Estatuak	?
	Laosko Herri Errepublika Demokr.	?
	Libanoko Errepublika	?
✓	Malaysia	
	Maldivetako Errepublika	?
	Mongolia	?
	Myanmarko Batasuna (Birmanian)	?
✓	Nepalgo Erresuma	
	Omango Sultanerria	?
✓	Pakistango Islamiar Errepublika	
	Palestinako estatua	?
	Qatarko Estatuak	?
✓	Errusiar Federakundea (*)	
✓	Saudi Arabiako Erresuma	
	Singapurko Errepublika	?
	Siriako Arabiar Errepublika	?
	Sri Lankako Errepublika Sozial. Dem.	?
	Tajikistango Errepublika (*)	?
✓	Thailandiako Errepublika	
	Ekialdeko Timorreko Errepublika	?
✓	Turkiako Errepublika(*)	
	Turkmenistango Errepublika	?
✓	Txinako Herri Errepublika	
	Txinako Errepublika (Taiwan)	?
	Uzbekistango Errepublika	?
	Vietnamgo Errepublika Sozialista	?
	Yemengo Errepublika	?

AFRIKA:

Afrika gertu dugun arren nahiko ezezaguna da guretzat. Afrikak herrialde asko ditu eta horietatik gutxi dira zeraindarrek ezagutu ditugunak. Hain handia eta berezia da Afrika, interesgarria baina zaila dirudi bertako herrialde guztietara joatea. Dauzkagun informazioaren arabera 9 herrialde bakarrik ezagutzen ditugu denon artean. Baina seguru direla gehiago. Norbait egon al da Egipton, adibidez?

	Afrika Erdiko Errepublika	?
	Aljeriako Herri Errepublika Demokr.	?
	Angolako Errepublika	?
	Beningo Errepublika	?
	Boli Kostako Errepublika	?
	Botswanako Errepublika	?
	Burkina Faso	?
	Burundiko Errepublika	?
	Cabo Verdeko Errepublika	?
	Djibutiko Errepublika	?
	Egiptoko Arabiar Errepublika	?
	Eritreako Estatua	?
	Etiopiako Errepublika Federal Dem.	?
	Gabondar Errepublika	?
	Gambiako Errepublika	?
	Ghanako Errepublika	?
	Gineako Errepublika	?
	Ginea Bissauko Errepublika	?
✓	Hegoafrikako Errepublika	
✓	Hego Sudango errepublika	
	Kamerungo Errepublika	?
✓	Kenyako Errepublika	
	Komoreetako Islamiar Errep. Feder.	?
	Kongoko Errepublika Demokratikoa	?
	Kongoko Errepublika	?
	Lesothoko Erresuma	?
	Liberiako Errepublika	?
	Libiako Arabiar Herri Errep. Sozia.	?
	Madagaskarko Errepublika	?
	Malawiko Errepublika	?
	Maliko Errepublika	?
✓	Marokoko Erresuma	
	Mauritaniako Errepublika Islamiarra	?
	Maurizioko Errepublika	?
✓	Mozambikeko Errepublika	
	Nigerko Errepublika	?
	Nigeriako Errepublika Federala	?

	Ruandako Errepublika	?
	Sao Tome eta Principeko Errep. Dem.	?
✓	Senegalgo Errepublika	
	Seychelleetako Errepublika	?
	Sierra Leonako Errepublika	?
	Somalia	?
	Sudango Errepublika	?
✓	Swazilandiako Erresuma	
	Tanzaniako Errepublika Batua	?
	Togoko Errepublika	?
✓	Tunisiako Errepublika	
	Txadeko Errepublika	?
✓	Ugandako Errepublika	
	Zambiako Errepublika	?
	Zimbaweko Errepublika	?

OZEANIA:

Guretzat oso urruti dago eta ezezagunena da. Nork daki zeintzuk diren hango herrialdeak? zeraindarrek, oraingoz behintzat, ezetz dirudi, ez dugulako bertan egon den inoren berririk. Egon al da norbait Ozeanian?

	Australiako Commonwealth	?
	Djibutiko Errepublika	?
	Fijiko Errepublika Burujabe Demokratikoa	?
	Guam	?
	Kiribatiko Errepublika	?
	Komoreetako Islamiar Errepublika Federala	?
	Marshall Uharteetako Errepublika	?
	Mikronesiako Estatu Federatuak	?
	Nauruko Errepublika	?
	Palauko Errepublika	?
	Papua Ginea Berria	?
	Salomon Uharteak	?
	Samoako Estatu Burujabea	?
	Tongako erresuma	?
	Tuvalu	?
	Vanuatuko Errepublika	?
	Zeelanda Berria	?

Ia seguru gaude mapa hau osatzeko informazioa falta zaigula, bisitatu gabeko herrialderen batean egona bazara, edo egon den beste norbaiten berririk baduzu, bidali iezaguzu informazioa helbide honetara urtekariazerain@gmail.com Ea denon artean zerrenda eta mapa osatzen dugun!

2015teko irailetik- abendura AZOKA EKOLOGIKOA



Irailaren 20an goizean ospatu zen azoka ekologikoa. Aurten ere ohiko postuak, muztioa eta tailerrak. Berrikuntza bezala sukaldarien erakusketa?????izan genuen.



Ikastolako haurrek, beraien baratzeko produktua erakusgai ere jarri zituzten.



Arratsaldean Japoniako Ragu sesio bat eta amaitzeko patxi Perezekin erromeria izan zen plazan.

GURASO ELKARTEAREN IRTEERA



Iraillean Basarte guraso elkarte aste buru pasatzera joan ziren.

Larunbat goizean karrantzan dagoen Karpin parkean izan ziren eta lo tokia kantabriako herri txiki bat izan zen. Igande goizean, berriz, Pozalaguako kobak ikusten izan ziren eta bazkal ondoren etxera.

Urriaren 17tik 25era bitartean egin zen aurtengo kultur astea.



Larunbata arratsaldean Irrien laguneko pertsonaia batekin, Hip Hip Urri!. Igandean herri bazkaria frontoian Bi egunetan herrien antolaketari buruz izan ziren eta bestea berriz Chilen egin-dako dokumentala "Erroak Komunitatearen lubakitik"



Marrazki rallya eta tortilla lehiaketa ostiralean izan ziren. Asteari bukaera hema-teko igandean Jubilatuen bazkaria bertxolariekin ospatu zen giro ederrean.

SANTA ZEZILIA

Azaroaren 20an Uharka abesbatzako ki-deek ospatu zuten Mandion abestuz eta Ostatun afalduz.

TALO ETA GAZTIÑA JANA

Azaroaren 21ean hainbat ume eta guraso joan ziren gaztain bila eta ondoren plazan taloak eta gaztainak prestatu zituzten, herri osoa gonbidatuta.

EUSKARAREN EGUNA



Abenduaren 3an Euskararen eguna ospatzeko eskolako haurrek ekitaldi bat burutu zuten plazan. Ondoren UEMA-ren bide ikurretako baten ondoan abesti bat abestu zuten. Bertan herriko euskaldun berriei oroigarri bana eman zitzairen. Amaitzeko Liztormendi elkartean merienda jan zuten.

Haurreko egunean pintxo poten Mandio tabernan Ipuin kontaketa eta kantak egin ziren.

URREZKO AIZKOLARI KOPA



Abenduaren 8an Urrezko aizkolari koparen bigarren final-aurrekoa jokatu zen. Bertan Jabier Dorronsoro hil berriari homenaldi txiki bat egin zitzaion.

SAN TOMAS EGUNA



Zeraingo EH Bilduk antolatuta, San Tomas eguna ospatu zen txistorra janez.

GABONAK



Abenduaren 24ean urteroko moduan bi talde atera ziren gabon-egunez etxez etxe eguraldi paregabea lagun zutela. Handiek 1251€ bildu zituzten. Diru hori Karitas, Kultur etxe eta Presoentzat izan zen. Eskolako haur taldeak 1047€ bildu zuten. Iluntzan berriz Olentzero etorri zen Zerainera gozoki eta gaztain erreekin. Honez gain, Olentzero Solidario ekintza ere burutu zen. Honi esker 140kg janari, jostailu eta eskolako materiala bildu ziren Haitiko jendearentzat.

2016ko Urtarriletik-Abendura

URREZKO AIZKOLARIEN BINAKAKO TXAPELKETA

Urtarrilaren 6an jokatu zen txapelketa. Bikoteak burutu beharreko lana 24 en-

bor sei modutara ebakitzea zen. Joseba Otaegi eta Juan Jose Lopez Azpilikue-tak osaturiko bikoteak irabazi zuen, Iñaki Azurmendi eta Donato Larretxeak ordea 13 segundu gehiago behar izan zuten Saioa amaitzeko.

2016ko GIPUZKOAKO TALDEKAKO BOLA TXAPELKETA

Mutiloan jokatu zen bigarren eta azken txanda. Bertan, Zeraingo taldeak lidergo-tza galdu eta Urnietako SantaKruz taldeak irabazi zuen 2016ko txapelketa.

TXOTX!



Oiharte

Nekazalturismoa eta sagardotegia

Maria Luisa Urrestarazu

20214 Zerain

Tel: 680 171 291

Urtarrilean hasi zen sagardo denboraldia Zerainen. Otatzan 15ean eta 16ean Ohiarten. Lehenengoan Xabier Dorron-soro eta Xabier Zaldúa aizkolariak izan ziren. Giroa jartzen berriz Tobera musika eskolako triki taldeko gaztetxoak eta Herriko Mikel eta Andoni izan ziren. Oiharten berriz Unai Agirre eta Iker Zubeldia bertsolariak egin zuten saioa eta herriko trikitilariak jarri zuten musika.

DANBORRADA



Ospakizun ederra izan zuten eskolako haurrek Danborrada egunean.

ZERAIN LABEKO BAZKARIA

Zerainlabek antolatuta urtarrilaren 24ean bazkaria egin zuten 60 bat lagun-ek Liztormendi elkartearen.

EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETA



Urtarrilaren 30ean jokatu zen Euskal Herriko mus txapelketa. Hamazazpi bikote lehiatu ziren, Eneko Arzelus eta Jon Mujika osatutakoak jantzi zuen txapela finalean eta bigarrenak Mikel Mariñelarena eta Josu Etxezarreta izan ziren.

IDIAZABALGO KROSA

Urtarrilaren 31an ospatu zen 36. krosa eta hainbat herritarrek parte hartu zuten bertan.

ESKOLAKO ANTZERKIA



Otsailaren 4ean eskolako haurrek antzerki ederra eskeini zuten. Mozorro artean dantza ugari izan zen, ondoren Mai-xunen merienda jan zen.

LIZTORMENDI ELKARTEKO TUTE TXAPELKETA



Urteroko tute txapelketa jokatu zuten otsailaren amaieran. Guztira 12 bikotek parte hartu zuten eta txapela Jose Manuel Oriak eta Jesus Comontes herritarrek jantzi zuten.

SANTA AGEDA

Urteroko legez, Santa Ageda eskean atera ziren zenbait herritar eta 1852€ bildu ziren. Ondoren Sagardotegian afari giroan bukatu zuten.

MARTXOAK 8



Emakumearen nazioarteko eguna ospatzeko, herriko kulturetxean Toti Martinez Mareak liburuaren Galerna Madarikatua pasarte batzuk irakurri zituzten hainbat emakumek eta ondoren Ostuan afari eder batekin girotu. Hurrengo egunean "emakumea eta baserria" mahai ingurua egon zen Liztormendin.

MUS TXAPELKETA

Martxoaren 8an, Liztormendi elkartearen, mus txapelketa jokatu zen, 24 bikotek hartu zuten parte. Felix Etcheberria eta Jon Muñoz ezkiotarrak izan ziran garaileak.



Tellerine Baserria

Nekazalturismoa

Jose Migel Arrondo Irastorza

Aizpe auzoa

20214 Zerain

Tel: 943 582 031

LEGAZPIKO BOLA TIRALDIA

Martxoaren 29an Aitziber Makazagak irabazi zuen txapelketa. Lehenengo aldiz emakume bat izan da garailea.

GURASO ELKARTEKO BAZKARIA


Apirilaren 16ean Ohiarten bazkaria egin zuten guraso eta haurrek giro ederrean.

BERTSO TXIKI SAIO HANDI



Apirilean zehar hainbat saio izan ziren be-launaldi ezberdinetako bertsolariak elkarren artean leian jarritz. Eneko Araiztegi eta Mikel Mendizabal izan ziren garaileak.

MENDI LASTERKETA



Maiatzaren 7an Segura-Zerain trail lasterketa ospatu zen. Sanson proba deritzonak, 2 ibilbide (15km eta 25km) eta bi herrietako txokorik politetenetatik pasa zen. 200 parte hartzaile eta ikusle asko izan ziren.

KULTUR ASTEA



Maiatzaren 7tik 15era ospatu zen. Asteazken zehar lau hitzaldi egin ziren, ostiralean marrazki rallya burutu zen, bertan egindako lanak herriko festetako programa eta urtekarirako lehiaketa azalentzat izan ziren. Bukatzeko eguna patata tortilla lehiaketa egin zen, irabazleak Nikola eta Arantza izan ziren.



Larunbatean barreterapia tailerra izan zen eta asteari amiera emateko San Isidro egunean komun publikoen inauguraketa eta herri bazkaria eliz atarian egin zuten bildutakoek.

SAN ISIDRO

San Blas ermitaren inguruan ekintza ezberdinak izan ziren.



ESKOLA TXIKIAK



Goierriko eskola txikien festa egin zen Itsasondan Maitzaren 14ean. Ekitaldi batekin hasi zen, jolas kooperatiboak ere izan ziren eta amaitzeko afari merienda bat jan zuten.



Izal Imaz eta Contreras

Pintura eta papergintza

20213 Idiazabal

Tel: 943 187 049 / 943 187 045

2016ko Andra Mari jaiak

Urtero legeztatuak Andra Mari jaiak abuztuaren 13an hasi ziren herritarren VII. pilota txapelketako finalerdiekin eta ondoren, ohiko gibel-jatea egin zen Liztormendi elkartearen.

14 goizean haurren txanda izan zen, puzgarriak, eta eliz bueltako korrika saioa izan ziren goizean eta bazkaldu aurretik Play Back-az gozatzeko aukera izan zen. Bazkalostean jokoak egin zituzten eta oihu eta algara artean buruhandiak ere izan ziren. Amaitzeko, eta aurten berrikuntza bezala, apar festa egin zuten plazan. Zortzietan festei hasiera ofiziala eman zitzaion pregoia, suziriak eta kanpai bueltakoekin. Sagardo dastaketari hasiera eman zitzaion eta plaza bete egin zen jan-edana zela eta inguratu ziren herritar eta kanpotarrez. Iluntzean Gau argi erromeriak plazan sekulako giroa jarri zuen eta honen ondoren, Sukarra 37 taldearen kontzertua izan zen.

Andra Mari egunari hasiera emateko txistularien goiz eresia izan genuen, ondoren bola txapelketaren hasiera ospatu zen eta meza nagusia amaitzean pilota txapelketaren finalaz gozatu ahal izan genuen, VII. edizio honetako irabazleak Iñigo Insausti eta Unai Eguren izan zirelarik. Eguerdian txakolin dastaketa izan zen, baita ere, Lumagorriko hegala parrilan. Jada arratsaldean bola txapelketaren bigarren saioa egin zen eta ondoren aizkolariak plazan. Iluntze aldera triki poteoa egin zen mozorrotuta eta jarraian gazte afaria izan zen plazan. Postrearekin batera txiste kontalari bat izan zen eta algara artean amaitu zen eta afariak kontzertuari bidea egin zion. Azken trena taldeaz gozatu zuten bertara inguratu zirenek.





Festatako egitarau irabazlea (Aizpea Elortza)




San Roke eguna bola txapelketarekin hasi zen eta meza nagusiaren ostean herriko artzainek eginitako gazta dastaketa izan zen. Dastaketarekin batera toka txapelketa ospatu zen eta bertan, haur zein helduk parte hartu zuten. Arratsaldean bola txapelketaren azken saioa ospatu zen Patxi Ormazabal gabiriarra izanik eta afaltzerako herri osoa plazan bildu zen herri afarirako. Afalostean Sebastian Lizaso eta Andoni Egañaren arteko bertso saioaz gozatu genuen.

Aipagarria da, aurtengo festaren egitarauaren azalaren lana, herriko 12 urte bitarteko haurren marrazkien I. go lehiaketatik aukeratua izan dela, Aizpea Elortza Elortzaren lana.

Urtero bezala, festei amaiera emateko, abuztuaren 17an arratsaldean plazara inguratu ziren herritarrek herria txukundu zuten.









SAN JUAN SUA



Urtero bezala, herriko txikien dantzak zabaldu zuen ekitaldia, ondoren Uarka abesbatzak abestu zuen. Jarraian sua piztu zuten haur eta gaztetxoek antor-
txen bidez kanpai soinuarekin lagun-
duta. Zeraingo festetako egitarauaren

eta urtekariko azalen 1. lehiaketarako la-
nak azaldu eta bozketa egin zen. Feste-
tako programaren azalerako 25 lan aur-
keztu ziren eta Aizpea Elortzarena izan
zen bozkatuena. Urtekarirako 7 lanen ar-
tean Izar Foronirena izan zen garaile.

UDAKO SOLSTIZIOA



Ekainaren 21ean ospatu zen San Blasen.
Bertan Gutik Zura proiektuaren aurkez-
pena, Peio Zabalaen hitzaldia eta bu-
katzeko afari merienda egin zen.

MUTILOAKO JAITSIERA



Uztailaren 1ean herriko plazatik trikitixa
eta panderoz lagunduta herritar talde
bat Joan zen Mutilora.

DENBORA LIBREA



Urtero bezala, eskola amaitu zenetik
uztaileko 3.astera bitartean herriko
haurrak, goizero, plazan bildu ziren
hainbat eskulan eta jolas egiteko. Aurten
gainera, ingelesa hobetzeko aukera
ere izan zuten.

ARANTZAZURA ERROMESALDIA

Urtetako bezala, Mutiloa, Zeraing eta Se-
gurako herritarrak Arantzazura joan zi-
ren erromes joan zen irailaren 3an. La-
runbatean, 80 lagun inguru oinez
abiatu ziren eta hauei, igandean, ibilgai-
luetan joan ziren gainerakoak batu zi-
tzaizkien.

AZOKA EKOLOGIKOA



Irailaren 18an, eguraldia gora-behera
giro bikainean ospatu zen Zeraingo
XXII. Azoka Ekologikoa. Aurten, urtero
lez, bertan salgai izan ziren produktuez
gain tailerrak ere egon ziren, ahala nola
gailera tailerra. Saltzaileak adierazi zu-
tenez, gustura gelditu ziren eguneko
salmontekin. Gainera, eguraldia lagun
izan genuen azoka amaitzen ari zela
bota zuen euri zaparrada arte. Horrez
gain, Anne Otegi Imazen eskutik show
cookingaz gozatu zuten bertara gertu-
ratu zirenek. Urtero bezala, muntaketa
eta desmuntatze lanetan koadrila ede-
rra aritu zen lanean, egunean bertan
antolaketan parte hartu zuten zuten gain.
Hauek, azoka amaitzean, elkartean baz-
kaldu zuten. Azpimarratzekoa, baita
ere, aurten herriko neskek izan duten
garrantzia.

LEKEITIORA TXANGOA



Irailaren 24ean, guraso elkarte goizean Zeraindik atera eta Lekeitio aldera, bertan txalupan ibili ziren, korrika lasterketa batean parte hartu zuten eta baita triki poteoan ere! ederki pasa zuten eta bertan gaua pasa ondoren hurrengo goizean Santa Katalina itsastegia bisitatu ostean Zeraina itzuli ziren.

UDALETXEAREN AURKAKO ELKARTERATZEA

Zeraintzen S.A. istearen ondorioz, Jakoba Errekondok Zeraingo herriarentzat lan egiteari utzi dio. Horren kontra, berrogei bat lagun bildu ziren udaletxe aurrean urriaren 6an. Udalari hartutako erabakiaren aurrean euren desadostasuna adierazteko.

KALTEAK UDALETXEAN

Denok dakigu zein den Zeraingo egoera, zatiketa, boikota, presioak, zankadiak udalaren kontrako kanpaina eten gabea. Urriaren 7an langile eta zinegotzi batzuk udaletxera lanera sartu

ezinik geratu ziren norbaitek izkutuan zerraila hondatu zuelako silikona eta txotxak sartuta. Badirudi batzuk tentsioa behar dutela baina horrelako sabotajeak egitea herriaren alde lan egitea al da? Udaletxea denona da eta umekeria hori dela eta, zeraingo herritarrek 300 € ordaindu behar izan ditugu. Udalak Beasaingo ertzaintzan salaketa jarri du.

HIP HIP URRI GOIERRIN BIGARRENEZ, ZERAINEN ETA MUTILOAN EKINTZA BATERATUAREN BIDEZ.

Urriaren 22an, larunbata, Zerain eta Mutiloaren artean Hip Hip Urri-ren bigarren edizioan jende askok parte hartu zuen. Haur zein helduek Zeraindik Mutiloarako bidea egin zuten Larbistaren laguntzaz, barreak eta jolasak ugariak izan ziren eta ondoren, behin Mutiloan, Largabistak ipun bat kontatu zuen.

JUBILATUEN EGUNA OSPATU DUGU AURTEN ERE GIRO EDERREAN



2016ko Zeraingo jubilatuen eguna ospatu dugu urriaren 23an. Ohi bezala 13:00etan mezarekin hasi zen ospakizuna, ondoren Ostatuan bazkaria eta bazkal ondorenean Patxi Etxeberria eta Beñat Gaztelumendi bertsolariek bertso saio polita eskaini zuten. Bazkaltzera joan ez ziren 80 urtetik gorako jubilatuei pastelak banatu zitzaizkien.

TALO ETA GAZTAINA JANA

Urtero bezala, aurtengo azaroaren 26an, talo eta gatzina jana izan zen frontoian. Bertara inguratu zirenak gatzaina, talo, eta edariaz gozatu ahal izan zuten.

EUSKARAREN EGUNA

Aurtengo euskararen eguna ospatzeko eta, azaroaren 23tik abenduaren 30a arte, "Euskararen Arnasguneak" Kultur etxean ikusgai izango den erakusketa oinarri izanik abenduaren 3an, larunbata, tailerra izan zen arratsaldean. Herriko haur zein helduk, UEMako lan taldekoekin batera Euskararen arnasguneen garrantziaz



Mikel eta Arantxa

TAXI adaptatuak - 9 plaza

Tel: 660 132 512 • **Mikel**

Tel: 645 006 737 • **Arantxa**



ohartarazteko hainbat ekintza burutu zizuten (bai erakusketa, bai tailerra UEMA-rekin batera antolatuak izan dira). Amaitzean, Liztormendi elkartearen modutxoan izan zen.

"BAKARDADEAK"



Esposizioa 1992tik aurrerantzean Virginia Gil-ek ateratako argazkien bilduma bat da eta bertan emakumea eta bizitzari azaltzen ditu: "ikusezinak ziren emakume hauek erreskatatu nahi izan nituen, jendeak ikus zitzan". Europako hainbat hiritan gizartetik baztertuak izan diren emakumeak erakusten ditu, eska-leak, etxebizitza gabeko pertsona eda-detuak, prostitutak, haurrak,... Honela hiri handien itzalean bizi diren emakumeen bizitza adierazi nahi izan du.

HERRI TXIKIEN KONGRESUA ZERAINEN



Zerainlab elkarte sortu berriak herri txikien kongresua egin zuen azaroaren 17, 18 eta 19an, Eusko Ikaskuntzarekin batera eta EAJren Aldundiaren babesarekin eta finantziazioarekin. Kongresuari bukaera emateko Zerainlabeko kideek frontoian bazkaria egin zuten eta baita herri kirol saioa eta erromeria ere.

ARALAR BIZIRIK!



Herri Txikien Nazioarteko Kongresuaren hasiera ekitaldiarekin bat eginez, Aralar larko pisten proiektuaren aurkako protesta egin zen herriko plazan. Hau, Landerlan ingurumen elkarteak deitu zuen

eta "Aralar bizirik!" lelopean hainbat herritar eta instituzioetako ordezkari bildu ziren herriko plazan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kezka eta aurkakotasuna.

SANTO TOMAS EGUNA



Abenduak 21 ean, herriko EHBilduk antolatuta txistorra jana egon zen eliz arian Santos Tomas eguna ospatzeko.

ELKARRETARATZEA ZERAINGO PLAZAN



Elkarretaratzea egin dute abenduak 17an Zeraingo plazan herritar batzuk, Luhusoko bost atxilotuen alde eta "bakeari bai" adierazteko.



Anaiak Garajea

Mekanika eta ibilgailu-konponketa

Goardiko Industri poligonoa

20213 Idiazabal

Tel: 943 187 483

2015eko irailetik- abendura

400. URTEURRENEKO MENDI IBILALDIA

Irailaren 18an aizkorpeko herrien artean mendi ibilaldia antolatu zuten.

Segurako plazatik Zegamara eta hortik Zerainera, gero Mutilora, Idiazábal aldera jarraitzeko eta Seguran amaitzeko. Ibilbideak iraun zuen 21,5Km-etan erai-kin historikoen ezagutza zabaltzeko.

EMAKUMEEN MUNDU MARTXA



2007an onartutako "Euskal herriko emakumeen eskubide gutuna" berresteko eta emakumeenganako begi bistako eskubide urraketak salatzen martxa Urriaren 2an Beasaindik pasa zen eta hainbat herritar han izan ziren, antolatutako ekintzetan parte hartzen.

ZERAIN LAB



Urriaren 2an Zerain Laben sorrera eta asmoak aurkeztu zituzten. Bi saio egin ziren, ilaren 15ean lehena eta azaroaren 26an bigarrena eta ahuetan egoeraren diagnostikoa egin eta talde lanetan bakoitzak bere ikuspuntua azaltzeko aukera egon zen.

GOI TENTSIO LINEA



Azaroan, Itsaso-Dicastillo lotzen dituen herri guztietan goi tentsioko linearen aurkako mozio bat aurkeztu zen. Honen helburua egun ditugun 200kw-ko linearen indarra ez bikoiztea da. Udalak hurrengo udalbatzan onartu zuen.

OIHARTE SAGARDOTEGIA

Abenduan "Ama Oiharte" izeneko sagardo natural aparduna aurkeztu zuten hainbat herri eta ekitalditan. Produktuaren kolore argi, zapore fresko eta burbuilek, arrera ona ekarri zioten eta produkzioa uste baino azkarrago bukatu zitzaion.



AUZOLANA

Azaroaren 28an beste hainbeste urteetan bezala, Barbariko auzokideek Urruztiko bidea garbitu zuten auzo lanean. Ohitura zahar polit hau mantendu, eta beste auzo batzuetara zabaltzeko erreferente izan liteke.

HERRI BATZARRA



Azaroaren 29an udal gobernu berriaren lehen batzar orrokorra ospatu zen, urtean zehar lau batzar egitea dago aurreikusita. Bertan, diru-kontuen, egindako gestioen, obra txikien eta beste hainbesteren berri izan zuten gerturatu ziren herritar guztiak. Gainera, lau batzorde sortu ziren herritaren parte hartzea sustatzeko.

MEDIKUA

Abenduan urte askoan gure mediku izan den Juan Karlos Albarez-ek merezitako erretiroa artu zuen. Alazne mediku berriak, azkar eta oso ondo bete du bere lekua eta zorte ona opa diegu biei aurrerantz.

ESPAINAKO ORTEETARAKO HAUTESKUNDEAK

Abenduaren 20an ospatu ziren eta hona emen emaitzak: Errolda 202, Bozka 141, Abstentzioa 61, PNV 57, EH bildu 55, Ahal-dugu 10, Orain batera 2, Ciudadanos 1.

UDAL LANGILEEN BAZKARIA



Udal gobernuko zinegotziek eta langileek, urteroko legeztatu batzari eder bat ospatu zuten.

2016ko Urtarriletik - Abenduak

UDAL TALDEA OSATUTA

Urtarrilean, zazpiko udal taldea osatzez bukatu zen.

AIZKORPEKO HERRIEN BILERA ZERAINEN

Urtarrilaren 23an bailarako herrien 16 ordezkariak parte hartu zuten bileran, urrena Idiazabalerako hitzartuz azarorako. Ondoren bazkaria egin zuten.

GURASO ELKARTEKO IKASTAROAK

Bihotz birika bizkortze teknikak ikasteko 4 orduko ikastaroa egin zuten Otsailean.

BATZORDEAK

Otsailean, batzordeak martxan jarri ziren. Herri Bizitzakoa, azpiegiturak eta zerbitzuena, tokiko garapena eta diru kontuena.

ZUNTZ OPTIKOA

Berri ona zeraindarrontzat, hainbeste urtetan internetarekin arazoak jasan ostean azkenik zuntz optikoa jarri da herrian.

LIZTORMENDIKO URTEKO BATZARRA

Apirilaren 10ean Liztormendin ospatu zen.

ALTZOKO ERRALDOIA ZERAINEN



Maiatzean Altxoko erraldoiari buruz filmea Zerainen grabatu zuten. Gainera gure herritar den Bartolok filmean konpartsero rola egin zuen.

HERRI BATZARRAK

Apirilean eta uztaillearen egin ziren herri batzarrak. Bertan landutako informazio txostenak etxe guztietara bidali ziren.

KOMUNAK



Plazako komun berriak maiatzean inauguratu ziren. Herritarrek oso gustora hartu zuten zerbitzu berria.

UDALEKUAK

Aurten ere udalekuak antolatu dira ekainaren 24an hasita hilabetez luzatu ziren.

ESPAINIAKO GOORTETARAKO HAUTESKUNDEAK

Ekainaren 26an errepikatu ziren. Zerainen hauek dira emaitzak: Zentsua 197, boto emaileak 145, PNV 61, EH BILDU 59, AHAL DUGU 12, PSOE 1, Baliogabeak 12.

SEXU ANIZTASUNA



Aurten, LGTBI kolektiboak urtero ospatzen duen "GAY arrotasunaren eguna" babesteko eta gizarte anitza osatzen dugula aldarrikatzeko aste osoan zear bandera jarri da udaletxean.



PILOTALEKUA



Kutxaren dirulaguntza batekin pilotalekuan kirol ekipamendu berriak jarri dira herritar ororentzat: Saskibaloiko bi karnasta, ping-pong mahai bat, porterieta-rako sareak, baloiak... Material txikiak pilotalekuko armairuan egongo dira eta giltza Ostaturun egongo da.

LIBURUTEGIA

Zeraingo liburutegia, auteskunde aurreko programan herritarrek eskatu eta honen betebeharrak erabakitzeke egin-dako bileren ostean; txukundu, berritu eta jadanik martxan jarri da.



DESFIBRILADOREA



Desfibriladorea jarri da eliz atariko komun publikoan. Guraso elkarteak antolatatu zuen ikastaroan hainbat herritar trebatu zen desfibriladorea erabiltzeko, beraz, orain eskuragarri jarri du udalak beharra dagoenean erabiltzeko.

ZERAINDARRA GERNIKAN

Bartolo Zubeldiak, bere astoak direla eta hainbat filmetan parte hartu du, hala nola, Gernika irailean estreinatu zen filme bat.

THE FLYING BARBERS ZERAINEN

Zerainez eta Tellerine landa etxeaz maitemenduta daude Reme Bartels eta bere familia, duela lau urte herria aurkitu zutenetik urtero itzuli dira. Bere azken bisitan, bera ez ezik, beste bost gizonezkoekin osatzen duen a capella taldearen kontzertua entzuteko aukera izan genuen. Kontzertua urriaren 23an izan zen Zeraingo elizan eta talde Alemaniarrak harrera oso adeitsua izan zuen.

ABELTZAIN GOIERRITARREK JASO DITUZTE GIPUZKOAKO USTIATEGI ONENEN SARIAK

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako abere ustiategi onenen sariak urriaren 3an eman zituzten, Gernikan (Bizkaia). Gipuzkoari dagozkion sari guztiak abeltzain goieritarrek jaso dituzte, hala nola, erkidegoko arditegi onena Zeraingo Basazabal baserriak lortu du.

EUSKADI-BASQUE COUNTRY INTERNATIONAL CHEESE FESTIVAL-EAN ZERAINDARREK SARIA

Nazioarteko gazta jaialdi honek bost kontinenteetako 3.000 gaztatik gora izan zituen eta World Cheese Awards lehiaketan, Goierri dagokionean, eskualdeko gaztagileek 27 domina lortu zituzten; horietatik 6 urrezkoak, eta 8 zilarrezkoak. Hauen artean Zeraingo Basazabal gaztandegiak brontzezko bi domina lortu zituen. Zorionak!

ZERAIN KOREAKO TELEBISTAN



Koreako telebista publikoak ekipo bat bidali du Zerainera programa bat egitera. Programa bertako nekazariei zuzendutakoa da, horren bidez nekazariak tokiko garapenerako hainbat esperientzia interesgarri ikusi ahal izango dute, tartean geurea. Gure herriko irudiak jaso zituzten bizpahiru egunetan, oso gustura egon ziren eta hemendik Europako beste herrialde batzuetara joan ziren.

TALDE BERRI BAT ZERAINEN

Zeraingo herritar talde batek Zeraingo gatazkari stop taldea sortu du azken urteetan Zerainen bizi den paorama ikusita. Herritarrek, Udala eta Herri Kandidaturaren arteko gatazka batean harrapaturik sentitzen direnez Aski da!

esateko garaia iritsi da. Taldeko kideek bakea eskatzen dute, beti ere errespetuz eta tolerantziaz. Talde berrian «gure ikuspegia konpartitzen duen edonorentzat ateak irekita» dituztela jakinarazi dute. Harremanetarako: zeraingogatazkaris-top@gmail.com

EAEKO HAUTESKUNDEAK

Irailaren 25ean Gasteizko parlamentua osatzeko hauteskundeak ospatu ziren Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban. ZERAINGO EMAITZAK: ZENTSOA: 197 BOZKA EMAITZAK: 162 EHBILDU: 72 EAJ: 71 Elkarrekin-Podemos: 5 ZURIAK: 2 NULOAK: 12 ABSTENTZIOA: 35

LEHEN URTEKO BALORAZIOA 2015/2016

herritarren eskutik Udalak urtebete bete zuen ekainean eta lehen urteko balorazioa egin zuen udal taldeak.

Balorazio hori osatzeko urrian zehar Udalak herritarrei galdetu zien eta herri batzarrean emaitzen berri eman genuen. Erroldatuta dauden 16 urtetik gorako zeraindar guztiak parte hartu ahal zezaketek, honela, 77 herritarrek eman dute euren iritzia: 35 emakume + 37 gizon + 5 ez dakigu. Adinari dagokionez: 16-30urte bitarteko: 8 herritar, 31-50urte bitarteko: 25 herritar; 51-65urte bitarteko: 23 herritar; 65 urtetik aurrerako: 20 herritar; ez dakigun: herritar 1 izan dira parte hartzaileak. Hona hemen balorazioaren laburpentxo bat: • INFORMAZIOA ETA GARDENTASUNA: Udaleko informazioaren berri izan dut: % 100 balorazio positiboa % 85ak oso ondo / bikain baloratu du • UDAL TALDEA: %96-ak positiboki baloratu du udal taldearen inplikazioa eta % 80ak oso ona / bikaina dela dio. • EGINDAKO EKIMENAK ETA PROIEKTUAK: % 94ak oso ondo/bikain baloratu ditu eta % 6ak gutxi/nahiko /ondo. Hoberen: PLAZAKO KOMUNAK, Euskararen eguna, emakumeen eguna, jubilatuen eguna eta irteera eta 2016ko sanjoanak.

HERRI ESKOLA

2015-2016 ikasturtea

Izenak: Bidatz, Enara, Oihan A., Nora, Harriet, Araitz, Irati, Oihan T., Edurne, Ekhi, Elorri, Eneritz, Amets, Julen, Elene, Lur, Maddi, Libe, Aner, Aimar, Alaitz, Adei, Miren, Ane, Aetz eta Nerea.



2016-2017 ikasturtea

Aner, Oihan T., Elorri, Amets, Libe, Nahia, Elene, Enara, Irati, Maddi, Lur, Aetz, Araitz, Adei, Paule, Bidatz eta Eneritz.



HAURRESKOLA

2015-2016 ikasturtea

Haurreskolan ibili ziren Nahia eta Paule.

2016-2017 ikasturtea


Kurtso hasieran ez zegoen haur erabiltzailerik eta ez da ireki, ea egoera aldatzen den kurtsoan zehar eta haurreskola edozein momentutan irekitzeko aukera dago.



JAIO TZAK

Uxue
Cortizo Salsamendi

2015-10-10




Enetz
Gartzia Araiztegi

2016-05-24




Jare
Gimenez Mujika

2016-07-24



Mara
Ormazabal Makazabal

2016-07-28



HERIOTZAK

2015eko irailetik gaur arte

ALUSTIZA ARRONDO, JOXE	2015-10-17
ELIZEGI ZUFIRIA, JESUSA	2015-12-23
AGIRRE ARRIZABALAGA, KARLOS	2016-10-06
ETXALUZE ZARRA, MARITXU	2016-11-22
ARRONDO ZUBELDIA, JUSTA	2016-12-19

BIZTANLEAK

2016-12-27an Zeraingo biztanleen kopurua 248 zen.

ZERAINGO SEKRETUTXO BAT

Garai batean, ohikoa zen etxe edo baserrietako ateen karratu zulo txiki bat izatea ate joka zebilena hau ireki gabe ikusi ahal izateko. Baina, ba al zenekien Zeraingo Kultur Etxean honelako zulo bat dagoela... bigarren pisuan balkoira ematen duen atean? Dirudienez, zulo honetatik kalean oinez zebiltzanak ikusi ahal ziren etxe barruan egonik, eta noski, ikusia izan gabe.



Zerainen Independentziari Bai!



Ekainaren 5ean Goierriko herri guztietan bezala Zerainen ere Gure Esku Dago dinamika antolatutako herri galdeketa parte hartzeko aukera izan genuen.

15.724 herritarrek bozkatu genuen Goierriin. Zerain, Mutiloa eta Gaintzan parte hartzeak % 70a gainditu zuen. Zerainen % 72,86ko parte hartzea izan zen, Goierriko handiena.

“Nahi duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?” galderari honako erantzuna eman zitzaion:

Errolda: 210, Boto-emaileak:

153, Bai: 149, Ez: 2, Zuri: 1, Baliogabe: 1

Gainera, interesgarria da gogoratzea 1978ko Espainiako konstituzioari buruzko erreferendumean Zerainen konstituzioari ezetz esan zitzaiola aho batez.

Galdeketa egin aurretik asko izan dira urtean zehar Gure esku dago dinamika antolatutako ekintzak. Adibidez apirilaren 16an Goierriko garai bateko eta gaur egungo ehunka zinegotzi eta alkate elkartu ziren duela 85 urte Araman eta Altzagan udalbatzek lehenengo aldiz autodeterminazio nahia agertu zutela gogoratuz galdeketa babesteko. Goierriin egindako bideak beste eskualde eta herrialdetan segida izango du datorren urtean.



Ostatu Jatetxea

2014 Zerain

Tel: 943 801 799



Ondarre

Harategia · Frutak · Barazkiak

Zurbano kalea
20214 Segura
Tel: 943 800 326

Xaguarteak 10 urte

Nork pentsatuko zuen duela 10 urte gaur egun Xaguarteak burutu duen ibilbidean? Izan ere, jadanik badira 10 udazken aldizkari honek zeraingo herritarrei era guztietako albisteen berri eman diela, hala nola, Xaguartearen ale ezberdinetan ikus ditzakegun bezala: festak, Gabonak, azoka, lehen sektorea, euskara, eskola... Berri batzuk alaiak izan dira, beste batzuk ez horrenbeste, Urquijo Zeraina etorri zenekoa edota Xaguartearen azken zenbakia iragartzen zuena kasu. Zailtasunak zailtasun, zeraindarrok oztopoei aurre egin diegu eta hauek gaindituz Xaguarteak bere bidearekin dirau. Hala, 111. zenbaki honetan eskerrak eman nahi dizkiegu hamar urte hauetan Xaguarte ahalbidetu duten pertsona guztiei.



Olatza Sagardotegia

Joxe Antonio Iparragirre

20214 Zerain

Tel: 943 801 757



2016ko Gabonak

Gabonetan baserriz baserri kantuan aritzeko ohiturari eutsi diogu beste behin. Urteak dira geure herrian eskolako taldea eta handien taldea abenduaren 24an abestera irteten direla. Auzo, baserri eta etxe guztietan abestu dugu. Aurten urtero bezala harrera beroa egin digute herritarrek. Goizeko 9:00etan elkartu dira haur eta gurasoak herriko plazan eta etxez etxe kantuan ibili ondoren 1140€ bildu dituzte. Dirua eskola eta guraso elkarteko beharretarako erabiliko da.



Gaztetxo, gazte eta helduen taldeak 1573,30 € bildu ditu eta bildutako dirua hiru helburutako erabiliko da, 524,45 € talde bakoitzarentzat. Hauek dira hiru helburuak:

- Eskualdean beharra duten herritarrentzat Bittorioren (Caritas) bidez
- Zerainen kultur ekintzak egiteko Oa Kultur elkartearen bidez
- Euskal preso politikoentzat Etxerat elkartearen bidez

Mila esker denoi.

Iluntzean, Olentzero etorri da haurrentzat oparitzoekin eta gaztainerkin herritar guztientzat. Eskolako haurrek eta Uharka abesbatzak abestuz eman diote ongi etorria Olentzerori eta giro ederrean ospatu ditugu 2016ko Gabonak Zerainen.







ABESTEN DUEN HERRIA

Gabon eskean abesteko abesti berria estreinatatu dugu aurten Gauza guztiak bezala, berritzea eta egokitzea dagokigu garaiaurrera egiten duten heinean. Bertsoak Gabiriako Aratz Igartzabal bertsolariak egin dizkigu, eskerrik asko eta zorionak bertso polit horiek eskaintzeagatik.

Gabon garaia iristen da ta
Nahi degun lagun artea
Ta ingurukoei zorion pixkat
Ta onena ematea
Ospa dezagun ahal bait ondoen
Hortako degu zortea
Ta uneoro zabal zabalik
Zorionaren atea

24a da abenduan
Kantari da herri dena
Guk familian ipintzen degu
Beharrezko sinesmena
Elkartu eta ondo pasatu
Festa hauetan barrena
Ingurukoen irri bat baita
Erregalorik onena

Zergatik dira denen iritziz
Urteko egun onenak?
Baina baditu alde txarrak e
Hori esaten digu senak
Gabon jaietan etxe danetan
Ez dira elkartzen denak
Ta lendabizi oroit ditzagun
Etiket urrun daudenak

Etxe hontako lanak eginda
Bukaera behar bota
Oihu ta salto egin dezagun
Hori bai, ez elkar joka
Kantari segi irribarretsu
Hartu ezazue nota
Kantatzen duen herri bat ez da
Pixka batean hilko ta

Egilea: Martin Aratz Igartzabal







2016-2017 ikasturtea BASARTE GURASO ELKARTEAN

Guztira 11 familiaz dago osatua guraso elkarte, eta eskolan dauden 18 hurrek gurasoek osatzen dute. Guraso elkarteak beti bezala jarraitzen du zenbait koordinazio-guneetan parte hartzen: herriko kultur-etxean, Gipuzkoako Eskola Txikien Koordinakindean, Goierriko Eskola Txikien Koordinazio gunean, kontseiluan eta behatokian.

Hauek dira aurtengo ardurak:

- **Lehendakaria:** Ainhoa Katarain
- **Lehendakari-ordea:** Aloña Salsamendi
- **Idazkaria:** Ana Otermin
- **Diruzaina:** Oroitz Altuna
- **Jangelako arduraduna:** Alaitz Makazaga
- **Kulturako ordezkaria:** Martina Urbistondo
- **Zaintzako arduraduna:** Arantzazu Gereñu

Aurten honako ekintza hauek egin ditugu:

Aurreko urtea, Gabon kantekin amaitu genuen. Inguruko etxe-etan abestu ondoren, herri kaxkoan amaitu genuen. Eguraldia lagun, diru poltsa bete genuen eta beti bezala, ateratako diruaren zati bat eskolako beharretarako erabiliko da, aurten psikomotrizitateko blokeak erosiko dira eta beste zati batekin igeriketa ikastaroko garraioa ordainduko da. Hurrengo egunetan, Olenzero ere Maixunera etorri zen eta gustura ireki genituen opariak.

Apirilean, Oiharten izan ginen denok bazkari eder batean.

Hilabete honen amaieran, Andrea etortzen hasi zen San Juaneko dantzak erakustera.

Maiatzean, gure txikiek marrazki ralian parte hartu zuten. Lan bikainak egin zituzten.

Goierriko Eskola Txikien Festa Itsasondon izan zen eta Gipuzkoako Eskola Txikien Festa Ikaztegietan egin ziren eta oso ondo pasa genuen bi egunetan bertako ekintzetan parte hartuz.

Ekainean, aurten irten diren familiei agurra eginez, Ostaturun afaldu genuen denok goxo goxo. Aurten Irten diren familiak: Nora, Oihan eta Ekain, Julen eta Harrietenak izan dira.

Udako denbora librea ere ate joka etorri zitzaigun konturatu aurretik eta aurten ingeleseko ekintzak antolatu ditugu. Umeak primeran ibili dira. Denbora Librearen aurretik zaintza zerbitzua egon zen eta hemen ere oso ondo pasa zuten.

Irailean ekin genion berriz ere kurtsoari eta baita guraso berriei ongi etorria eman ere: aurten Nahiaren familiari eman diogu, Pauleren gurasoak lehendik ere guraso elkarteko partaide zirelako.

Irailean, urteko irteera egin genuen. Aurten Lekeitio aldera joan ginen eta primeran ibili ginen. Larunbatean joan ginen eta Isuntza arraun elkartekoekin itsasora atera ginen, primerako eguraldia egin zuen eta batzuk itsasora ere salto egin zuten. Hurrengo egunean itsasargia ikustera joan ginen. Primeran pasa genuen!

Azaroan, talo eta gaztaina jana egin genuen. Oso goxoak zeuden aurtengoak ere eta txikiak gustura ibili ziren eskuak zikinduta!



Lekeitioko irteeran, aurten guraso elkartetik atera diren familiei agur txiki bat egin genien. Hemendik, Harriet, Nora, Julen, Ekain eta Oihanei zorte ona opa diegu beraien eskola berrian. Rebeka, Eva, Amaia, Alberto, Gotzon, Andoitz, Anabel eta Haritz eskerrak eman urte hauetan egin duten lanagatik. Mila esker!



Aranburu Harategia

Kale Nagusia, 34

20214 Segura

Tel: 943 801 014



ZERAIN GORA ETA BEHERA... HAINBAT GOGOETA

Azken urteotan, denen ahotan dabilen herria dugu geurea. *"Hitz egin dezatela gutaz, gaizki bada ere"* dio esamoldeak eta badi-rudi seriozki hartu dugula zeraindarrok ditzosozko esapidea. Eskandaluak bidelagun duen morboa ere bizigarri polita da jendearentzat eta ari gara esana ematen, bai horixe. Ahaleginik, behintzat, ez zaigu falta. Hala ere, ez dut uste inork harro sentitzeko motibo handirik izango duenik. Hemengo kalapita eta ikamika txoroak, bertako asko ez ezik, kanpokoak ere nazkatu ditu jada. Irudi lotsagarria ari gara ematen eta barregarri geratzen ari garela onartu beharrean gaude. Gehien kezkatzen nauena, ordea, ez da hori. Egia esan, besteek esango dutena ez zait larregi axola. Bertakoen artean egiten ari garen minak eta oina-zeak, ondotoz gehiago kezkatzen nau. Eta okerrera zera da, egoerak ez duela batere traza onik. Urtea joan urtea etorri, betiko zulo beltzean harrapatuta jarraitzen dugu. Ez atzera eta ez aurrera. Batzuetan, zauriak osatu partez, gehiago gaiztotzen ari direnaren sentsazioa dut eta zintzoki, honi amaiera jarri ezear noraino irits gaitezkeen ene buruari galdetzen diodan, izuak hartzen nau.

Tamalgarria da hirurehun biztanlera iristen ez den herrixka batean horrela ibili behar izatea. Beti sesioan eta muturtuta, elka-

rri diosala ukatuz edo gugandik bi metrora bizi den herrikide-ari aurpegira begiratzeko adorea atera ezinik. Argi hitz eginda, zenbait jarrera makurrek ere ez dute askorik laguntzen elkarbizitza horretan. Zoritxarrez, errespetuz kanpoko jokamoldeak, ohitura bihurtu direla ematen du Zerainen eta desadostasuna adierazteko modu mespretxagarrien sistematizazio horrek, haserre handia sorrarazten dit. Manipulazioa, difamazioa, mehatxuak, irainak, erasoak, biraoak, isekak... zerrenda ilun bateko adibide xume batzuk besterik ez dira. Horrelako estrategia gaiztesgarriak, normalean, norberaren ikuspuntua defendatzeko pisuzko argudiorik ez duenarengandik etortzen dira eta interes propioak zapuzteak eragiten duen frustrazio eta inpotenziaren ondorio garbia dira. Arrazoi gabezia edo eskasian sostengatzen dira eta izugarritzko ahulezia erakusten dute. Kontuak kontu, gizalegearen muga etiko eta morala gainditzen duten heinean, guztiz salagarriak dira eta ezin da helburu jakin batzuen lorpenerako horrelako mekanismoen erabilpena inondik inora onartu.

Gauzak honela, dagoeneko marra gorria igaro dugu Zerainen. Adi, beraz. Piztu ditzagun alarmak eta joka dezagun tentuz aurrerantzean, arazoak eskuetatik alde egin baino lehen. Hau ja-

sanezina bihurtu da eta geroz eta herritar gehiago gara tentsio giro honekin kokoteraino gaudenak. Asko ataka estuan aurkitzen dira eta ez dira egoera hau salatzen ausartzen. Errepresalien mamuak, jasaten duten xantaia emozionalak edo lotura afektiboak apurtzeko beldurak atzera botatzen ditu eta nahiago dute isilik geratu edo ezer ez jakin. Gogorra da gero hori! Sentitzen dena adierazteko askatasun ezak, atzetik jazarpen emozional bortitza dagoela erakusten digu eta hori, penagarria izateaz gain, oso larria da. Azken urteetan, gauza asko isilean eraman badira ere, Zerainen gertatzen ari denaren azalpen publiko bat emateko garaia heldu dela iruditzen zait. Psikologian graduatua naizen aldetik eta giza jokabidea ikertzen duen profesional gisa, Zeraingo gatazka aztertzea joko dut segidan. Nire ekarpena, gaur-gaurkoz herrian dugun egoeraren inguruko kontzientzia-maila handitzeko eta arazoa hobeto konprenitzeko baliagarri suertatzea espero dut.

Zer da Zeraingo gatazkatzat ezagutzen duguna baina?

Asko eta asko dira ea Zerainen zer demontre gertatzen den galdetzen didatenak. Hemengo gaiaz itauntzen didaten hauek, gainera, galdu xamar sumatzen ditut, halako ezjakintasun eta harridura moduko batek gain harturik. Alabaina, apur bat pentsatzen jarritz, ez da oso harritzekoa duten nahaste-borrastea. Alde batetik, bertakoa ez denarentzat edo bertako errealitate soziala ezagutzen ez duenarentzat bederen, ez da entenditzen erraza. Bestetik, etxeko postontzietan jasotzen dugun eta hainbat komunikabidetan ere agertzen den alde bateko eta besteko informazioak, edonor erotu dezake. Eta azkenik, alderdi politiko eta herri plataformen izenek zein bestelako nomenklatura, sigla eta etiketek ere, ez dute arazoaren ulermeneari mesede handirik egiten eta nahasmenera eraman gaitzakete. Dena den, arazoaren estalki eta parafernalia guzti horrek engaina baikaitzake ere, funtsean ez da ematen duen bezain konplexua. Hori bai, kontu handia izan behar dugu esaten dugunarekin, izan ere, askori entzun diet jada, Zeraingoa, gatazka politiko bat dela aho betean baieztatzen, politika sartu dela Zerainen eta horrek zaitu duela herria gaineratuz. Ezta hurrik eman ere. Konklusio hori, sinplisia izateaz gain, azal-azalekoa da. Ez nago batere ados horrekin eta garbi utzi nahi dut lerrootatik, Zerainen barru-barruan gertatzen ari dena ez dela afera politiko bat, ezta guxtiago ere. Hemengo gatazkaren erraiek, ez dute inongo oinarri politiko ez eta ideologikorik. Beste hitz batzuekin esanda, Zerainen hainbestearainoko aztoramendua eragin duena, ez da bi alderdiren arteko ideien talka edo herri-proiektu ezberdinen konfrontazio bat izan.

Zer dago orduan guzti honen atzetik? Galdetuko dute zenbait tek puntu honetan. Zerk eragin du horrelako asaldura? Beno, Zeraingo azken urteetako joerei erreparatuta eta arazoaren sorrera

nahiz bilakaera aztertu ondoren, *lurraldetasunari* lotutako arazo baten aurrean aurkitzen garela esan behar da, hots, *lurralde* baten menderatzearekin erlazionatutakoa eta botere-gatazka batekin egiten dugu topo hemen. Elkar ulertzeko, punpa lasterrean eta gaizki hitz eginda, herriaren buruzagitza eta kontrola jokoan dauden ongi bereizitako bi botere-guneren arteko nor-gehiagoka gordin bat da. Kontu honetan eta beronen kausetan gehiago sakondu aurretik, goazen guzti hau hobeto ulertzen lagunduko digun *lurraldetasunaren* kontzeptua ikustera.



Lurraldetasuna

Lurralde hitza entzutean (gaztelarazko *territorio*), ziur nago, batzuk, Zeraingo korapiloan ea zer demontre pintatzen duen honek galdetu diozuela zuen buruari. Eta agian, hitzez nahastu naitzela ere pentsatu duzue. Baina ez, ez naiz okertu. *Lurraldetasunak*, berebiziko garrantzia hartzen du Zeraingo gatazka ulertzeko garaian. Etologia, Soziobiologia eta Jokabidearen Ekologia bezalako diziplinetan, *lurralde* terminoa, espezie partikular bateko animalia batek espezie berekoengandik irmotasunez defendatzen duen edozein eremu adierazteko erabiltzen da. *Lurralde* defendatzaileak diren animaliak, *animalia territorial* bezala ezagutzen dira eta gizakia, planetako beste espezie asko bezala, zaku horretan sartzen da. Gauzak honela, definizioari jarraiki, *lurraldeari* buruz hitz egiten dugunean ez zaio hitzaren esanahi hertsian lur zati edo eremu geografiko konkretu bati soilik erreferentzia egiten. BioNeuroEmozioaren eta Psikosomatika Klinikokoaren barrutian, *lurraldetasun* kontzeptuak askoz ere hedadura semantiko zabalagoa hartzen du. Parametro hauetan, gizakiarentzat eta bere inkontziente biologikoarentzat, *lurraldea* edo *territorioa*, ekintzarako edozein eremu izan daiteke. Gizon-emakumeak parte hartzen duen eta ingurukoekin elkarerraginean diharduen ekintza-esparru oro, beraz, *lurralde* kontsideratzen da. Jabetza senarekin lotura oso estua du eta zentzu horretan, bizi garen etxea, lanpostua, bikote sexuala edo autoa bera ere *lurraldetzat* har daitezke. Nolabait esateko, norberaren "ondasunak" izango lirateke. Arrazionalki tontakeria bat dirudien arren, inkontziente biologikoa ez da hori bereizteko gai eta sekulako eragina du guzti honek gure eguneroko hartu-emanetan.

Zeraina itzuliz, arrazoimenaren eta intelektuaren bidezko irakurketatik, erabat ulertezina da hemen gertatzen ari dena. Guztiz kontraesankorra, gainera. Nola da posible horrelako etsaitasuna egotea muinean helburu berberak dituzten eta herriaren ona nahi duten bi talderen artean? Noren kaskezurrean sartzen da hori? Zorionez, gizakia ez da erabat arrazionala eta bere jokabidea ez du arrazoiak bakarrik arautzen. Eta eskerrak horri, harrapakari edo predatzailer baten aurrean zer egingo genukeen "pentsatzen" hasiko bagina, honezkero hilda baikeundeke. Gure biziraupena bermatzea helburu duten programa biologikoak ondo baino hobeto errotuak ditugu gure neurologiaren sakonean eta ezin hobeto lan egiten dute. Zer esan nahi dut guzti honekin eta ze lotura du Zerainekin? Sipleki, hemen gertatzen ari denak, oinarri biologiko oso sendoa duela eta arrazoiaren bidez hau azaltzen saiatuko bagina, bizitza osoa horretan emanda ere, ez genukeela helburua lortuko.

Berriz *lurraldetasunari* helduz, maila inkontzientean, etengabe dihardugu gauza errealak nahiz sinbolikoak, tokiak edo bestelako objektuak norberaren *lurralde* bilakatzeko lanetan eta zentzu batekin egiten dugu, *lurralde* batekiko atxikimenduak ekartzen digun onura eta ongizateagatik. Gizakia *lurralderik* gabe ez da ezer. Prozesu horretan, gizon-emakumeok erabiltzen dugun mekanismoa guztiz ezberdina da eta garrantzitsua iruditzen zait honen zergati arkaikoa erakustea. Esate baterako, gizonezkoa edo termino biologikoetan nahiago baduzue, arra, *lurraldea* berea denean eta bere seinalea edo arrastoa (batez ere usaina) daramanean bakarrik sentitzen da etxean, eroso. Emeak, oster, bere erara antolatu dezakenean soilik jotzen du *lurralde* hori beretzat. Hau oso garrantzitsua da maila biologikoan eta kulturatik edo ikasitakotik haratago doa. Emakumea, milaka eta milaka urtetan, belaunaldiz belaunaldi, gizona jaki eta mantenu-gaien bilaketan zebilen bitartean, etxearen (koba edo haitzuloa) antolakuntzaz eta zaintzaz arduratu da. Gizonezkoak, bestalde, egunak ehizatzen eman ondoren leize-zulora itzulita-koan, honen jabetasun bulkada indartsu bat behar zuen bertakotzeko, modu honetan, babestua sentitu eta atsedean hartzeko.

Guzti hau herriko gatazkari aplikatuz eta sexu bereizketa horretan sartu gabe, Zerainen baten batzuk *lurraldea* (herria bera eta espezifikagoak izateko, udaletxea) bere egin dutenaren zantzuak atzeman ditzakegu, izan ere, azken urteetan portaera benetan bitxiak ikusteko parada izan dugu, zeintzuk gauza askoren ulermenean oso baliagarriak zaizkigun. Lehentxeago komentatu bezala, *animalia territorialak* garen heinean, hemengo erreakzio eta jarrera askok *lurraldea* babestearekin eta beste batzuei gerturatzen ez uztearekin lotura zuzenagoa izan dute, desadostasuna edo ikuspuntuaren diferentzia adieraztearekin baino. Ikus dezagun zehatzago *lurraldetasunak* nola eragin duen Zerainen.

Arazoaren sorburua

Azken hamarkadetako Zeraingo herri-egitura eta testuinguru sozialari erradiografia bat egiten badiogu, bertako herri-antolakuntza eta funtzionamenduari buruzko datu esanguratsuak ateratzakegu. Inork ez du zalantzan jartzen, urte askoan, lan-ildo konkretu bat egon dela martxan Zerainen, zeinak intrintsekoki lan egiteko modu bat izan duen. Hori begi-bistakoa da. Nik, maila pertsonalean eta herritar bezala nire iritzia izan dezakedan arren, ez naiz lan-ildo horrek egindako herri-proiektuaren garapena eta kudeaketa ebaluatzen edo epaitzen hasiko, hori ez baita nire egitekoa eta ez baitu Zeraingo gatazkaren mamian inongo eraginik. Bai kuestionatuko dudana da, gainontzeko herritarrei zuzenean erasan digulako eta, ondorioz, sortu dituen albo- kalteengatik, korrante horren baitan sortutako eta ongi baino hobeto kohesionatutako botere- gune batek egin duen agintearen eta autoritatearen kudeaketa.

Beti esan izan zaigu Zeraingoa berdintasunean oinarrituriko herri-eredu bat zela. Udal hauteskundeak iristen zirenean, us-tezko sistema demokratiko eta parte-hartzaile baten bidez aukeratzen ziren hautetsiak. Perfektua zirudien, idilikoa eta akatsik gabea. Baina egia ez zen horrela, ez zen erreala, izan ere, Zeraingo hainbat giza-joerek guztiz kontrakoa erakusten zuten eta sistema horren fidagarritasuna zalantzan jartzea eragiten zuen horrek. Esaten zenaren eta gero benetan egiten zenaren arteko inkoherentzia horretan, kontraesan handi batekin egiten dugu topo. Eta ez da oso zaila hau ulertzea. Zinez aukera berdintasunean oinarritzen den sistema batean, ezin da inongo botere sarerik egon. Herritarrek parte hartzen duten herri mailako erabakietan, besteek baino influentzia-maila handiagoa duten batzuk audien momentu berean, erlazio hori automatikoki parekidea ez izatera pasatzen da eta, ondorioz, joko-baldintzak ez dira berdinak zeraindar guztientzat. Horrek, batzuen nagusitasuna eta beste batzuen zapalketa ahalbidetzen du eta goitik beherako noranzkoa duen hierarkizazio batera garamatza, hierarkia, sistema bereko elementuak sailkatzen dituen egitura bat bezala ulertuz. Horrelako egituraketa bat, dominazio eta sumisio azpi-joeretan oinarritzen da eta herritarren arteko harreman eta elkarrekintza sozialak guztiz baldintzatzen ditu. Antolaketa modu honek, Zeraingo herri-eredu ideala pikutara bidaltzen du.

Zeraingo gatazka, beraz, ez dago aurrez ezarritako botere-gune horren existentzia gabe ulertzerik. Zeraingoa benetako berdintasunean oinarritutako herri-eredu bat izan balitz, ez ginateke gaur gauden egoeran aurkituko. Ziur egon horretaz. Botere-gune horrek, Zeraingo gidaritza bere gain hartu du urte luzez eta ikusi besterik ez dago bere *lurraldea* kontsideratzen zuen ekintza-eremuan beste indar-gune bat agertu denean zer nolako zalaparta sortu den herrian. Eta ez dago hau guztia nik hitzez azaltzearen beharrik, eurak izan dira euren erreakzio eta



jokabidearekin agerian utzi dutenak. Mehatxu kontsideratu dituztenen aurrean, bakar-bakarrik kendu dute mozarroa eta mota guztietako ekintzekin argi utzi nahi izan dute zein den euren espazioa, euren jabetza. Okupatzen den *lurraldea* babesteko animalioak erabiltzen dugun instintuzko portaera da.

Guzti hau ikusita, Zeraingo arazoa ez da azken udal-hauteskundeetan herritar talde batek, talde horren izena edozein delarik ere, orain arteko funtzionamenduarekin apurtuz beste zerrenda bat aurkeztea erabaki izana. Jendea ez dadila horrekin nahastu, hori ez baita inondik inora Zeraingo arazoaren funtsa. Hori arazoaren ondorioa da. Batzuentzat argi dago ondorioa arazo galanta bilakatu dela baina ez ditzagun gauzak distortsionatu eta ez dezagun arazo-fokua interesatzen zaigun lekura eramanez, besteak kriminalizatuz norberak biktima papera hartzeko. Horri, manipulazioa deitzen zaio. Entzun ongi bai, manipulazio emozionala. Besteek guk nahi duguna egitea lortzen ez dugunean erabiltzen dugun mekanismo psikologiko bat da eta zorritzarrez, Zerainen gehiegitan ikusi duguna. Beraz, inork ez dezala hori demagogia merkea egiteko erabili. Zeraingo arazoaren muinera joan nahi badugu, orain arteko udal-mugimendu ofizialetik at, horri aurka egingo dion herritar talde baten agerpena zerk bultzatu duen aztertu behar da. Horren arrazoiak eta desadostasun-iturria dira hor analizatu beharrekoak, izan ere, gauzak zerbaitengatik egiten dira eta batzuek euren ezinegona adieraziz urrats hori eman badute, ez da kasualitateagatik edo kontra egite hutsagatik izan. Orain arteko dinamika batzuen salaketa, askorentzat zerbait hain ongi egiten ari ez zenaren seinale garbia da eta horrek arazo baten aurrean egon gaitezkeela esan nahi du. Aztertu dezagun, bada, disonantzia hori eta eman ditzagun bakoitzak bere posizioa defendatzeko pisuzko argu-

mentuak. Eta ez du balio, batzuei hala komeni zaielako, orain arte gauzak horrela egin direla eta horrela egiten jarraituko dugula esateak. Ezta gu gehiengoak garelako eta zuek gutxiengoak zaretelako esateak ere, jende hori baztertuz, betiko leloarekin jarraitzeko. Hortaz, zerk huts egin du hor? Nolatan iritsi gara puntu honetara?

Ez dakit konturatu zareten baina bide guztiek leku berera garamatzate. Eta ez preseski Erromara, Zeraingo gatazkaren sustraietara. Azken udal hauteskundeetan, betikoek *lurralde* ofiziala besteen eskuetan "utzi" duten arren, kanpotik borrokan dihardute. Ofizialaren faltan, lurralde alternatiboen sorreraren testigu ere izan gara eta liskar *territorialak* aurrera darrai, herri-tar guztiak zipiritinduz. Zerainen, akatsa, inorena ez dena norberarena egitea izan da. Edo hobeto esateko, guztiona dena, norberarena bihurtzea. Eta orain, gauden lekuan gaude.

Eta orain zer?

Introspektzioarako galdera ona dugu honakoa. Zeraindarrok erronka latza dugu esku artean honi buelta eman nahi badiogu behintzat. Egoera hau muturreraino heldu da eta inoiz imajinatu ezinezko dimentsioa hartu du. Beldurra ematen du, gainera, gatazka ze distortsio mailatara iritsi den ikusteak. Adibide bat jar-tzearren, ikaratzeko modukoa iruditzen zait, Euskal Autonomia Erkidegoko edo estatu mailako hauteskundeak, Udalaren aurkako mezuak helarazteko probesten dituzten horiena. Eta zer esanik ez, helburu berberetarako txarkuteriako produktuez baliatzen direnena. Izugarritzko bihurtura da horrelako gauzak Zeraingo aferarekin nahastera iristea eta pena ematen dit jendea herrian horrela dabilela ikusteak. Euren errealtate mingotsaren isla besterik ez da. Guzti horiek, arazo larri baten aurrean aurkitzen dira. Dena den, ez pentsa honekin amaitzeko soluzio miragarriarik edo inolako edabe magikorik aurkituko dugunik. Honi amaiera norberak eman behar dio, norberarengandik etorri behar da istorio honi akabera emateko hautua, barren-barre-netik eta, batez ere, bihotzetik. Noski, horretarako nahi izan behar da eta borondatea erakutsi. Zentzu honetan, ezinbestekoa da lagun hurkoari merezi duen gutxieneko begirunea izatea, parean dugun hori gure gustukoa ez bada ere. Eta ezin dugu errespetuaren eta gizalegearen atalasea inondik inora zeharkatu, hori gaingitzen dugun une berean, geure buruari ere berdina egiten ari garelako. Gustatzen ez zaizkigun erabakiak badaude, kexatu gaitezen naturaltasunez baina kexa argudioez lagundurik joan dadila eta ez argudioz kanpoko ezertaz. Utz ditzagun ume txikien trekelak eta joka dezagun helduki. Zeraindarrok ez baitugu hau merezi eta ez baitugu hau zertan jasan.

Gabon jai zoriontsuak zeraindar guzti-guztientzat. Oparotasuna arlo guztietan eta bakea ekar diezagula urte berriak.

Maitasunez,

Beñat Zubeldia

EUSKAL HERRITIK KANPO URTE BETEZ

Txikitandik izan naiz abentura zalea, bidaiatzea ikaragarri gustatzen zait, batez ere ingeles hiztunak dituen herrialdetara, hau baita hobekien dakidan hizkuntza internazionala. Duela pare bat uda Irlandara joan nintzen hilabetez, eta hura izan zen lehen aldia denbora luzez Euskal Herritik kanpo egon nintzena. Esperientzi ikaragarria izan zen, nahiz eta familia eta lagunen falta sumatu izan, itzultzean gurasoei abentura berri bat planteatu nien, hurrengo udan AEBtara joaten utziko al zidaten, eta halaxe egin nuen, 2015eko udan nire kabuz bi hegazkin hartu eta Utah izeneko estatu menditsu batera iritsi nintzen. Bertan lagun batzuk ditudanez beraien etxeko atea zabaldu zidaten 5 astez, eta bertan nire biziko udarik hoberena pasa nuen.

Estatubatuarrek oso alaiak eta irekiak dira, zu ezagutu ez izan arren beti laguntzeko prest daude. Horrez gain nire Ingelesa hobetzeko aukera izan nuen. Guztiok bezala familia eta lagunak falta sumatzen nuen baina egunerokoak harritzen ninduen ez nuen beraierengan gehiegi pentsatzen. Itzultzeko garaia heldu zen eta nahiko triste nengoen, beraz gurasoei hurrengo galdetu nien; pasa ahal dezaket urte oso bat AEBetan? Denbora luzea pasa zen gurasoek baiezkkoa eman zidaten arte, garestia baita, baina gehiena kezkatzen ziena, beren alaba urte batez munduaren beste aldean bizitzen ikustea zen.

Hilabete oso batez hainbat paper bete beharra izan genituen, baina azkenean eguna gerturatzen zihoan heinean geroz eta kezkatuagoa nengoen, baina baita pozik ere- Familia eta lagunei agur esateko unea heldu zenean ezin izan nituen negar malkoak gelditu, nire bizitzaren parte handiena baitira eta urte batez beraierengandik aldentuta egoteak beldurtzen ninduen.

Azkenean iritsi zen unea, 2016ko Abuztuaren 20^a. Goizean goiz aireporturako bidea hartu genuen eta bidai luze baten ondoren, eta 3 hegazkin desberdinetatik pasa ondoren nire abentura hastear zegoen. Arkansasera iritsi nintzen, Estatu Batuetako hegoaldeko estatu batetara. Hegoaldean granjak, animaliak eta 'CowBoy'ak aurki daitezke eta niri ez zitzaidan hori gehiegi gustatzen, baina ez zegoen atzera bueltarik. Hegazkinetik jaitsi orduko nire familia berria ikusi nuen. Oso pozik zeuden eta baita ni ere, baina ez nekiena poztasun hori amaituko zela zen.

Etxean nire adineko ahizpa bat nuen, baina bera ez zen batere atsegina eta nahiko arazo izan genituen, berak ez baitzuen ni bere familiaren parte izaterik nahi, beraz familiaz aldatzea izango zela hoberena aholkatu zidaten agentzietatik. Aste bate barruan familia berri bat nuen, eta hauek beste neska bat zuten etxean. Bera, Alemaniara da eta ni bezala urte bete pasatzera

etorri da hona. Oso ondo eramaten gara biok eta dagoeneko bera nire ahizpa bihurtu da. Horrez gain, anaia txikiago bat daukat etxean, berak 11 urte ditu eta nire lagunik hoberenetakoa bihurtu da, gauza asko egiten ditugu batera.

Momentu honetan oso pozik nago nire Familia Amerikarrarekin, gauza ugari egiten ditugu batera eta beti laguntzeko prest daude. Horrez gain lagun asko ditut dagoeneko eta egia esan etxean bezala sentitzen naiz.

Bizitza Arkansasen oso desberdina da. Ameriketara 16 urterekin gida dezakezu beraz jende guztia autoetan ibiltzen da, eta gezurra dirudien arren ez dago espaloik, beraz ezin da inora oinez joan, mugitzeko autoaren beharra dago. Horrez gain, kirolari garrantzia gehiago ematen diote ikasketei baino, eta eskolan ikasketez gain hainbat gauza

desberdin egiten dituzte.

Bizitza nahiko lasaia da, etxetik eskolara eta eskolatik etxera mugitzen dira edo eskolatik lanera. 16 urterekin gidatzeaz gain lanean ere hasi daiteke, beraz ez dute denbora gehiegi familian igarotzen. Horrez gain edozein momentutan jaten dute, eta askotan ez dituzte otorduak errespetatzen, hori izan da ohitzea gehien kostatu zaidan gauza bakarra, goizean gosaldia eta goizeko 11etan bazkaltzen dute, eta ondoren arratsaldeko 17:00-17:30etan afaldu.

Arkansas eta Euskal Herriak ez du inolako zerikusirik, Euskal Herria menditsua da eta Arkansas berriz oso laua, mendixka batzuk ikus daitezke baina ez Euskal Herrian bezala. Hainbat laku eta erreka daude eta jendea askotan joaten da lakura egun pasa. Jendea oso alai da eta festa ugari dituzte, eta askotan ematen diete eskerrak elkarri. Hori ikasi beharko genuke Euskaldunok.

Arkansas nahiko zabala denez hiri handi batetik bestera joateko gutxienez bi ordu behar dira, eta toki gehienetan autopistarik ez dagoenez denbora gehiago behar izaten da.

Hiru hilabete eta erdi noa hemen eta momentu honetan ez nintzateke itzuliko, nahiz eta Euskal Herria, familia eta lagunak falta sumatu, bizitzako esperientzia baita eta ziurrenik ez dut beste aukerarik izango beraz ahal dudana guztia aprobetxatzen saiatzen ari naiz.

Azkeneko gauza bat esatea besterik ez zait geratzen, Euskal Herria ez da munduko leku bakarra eta ezta hoberena ere, mundua harrigarria da beraz ingelesez dioten bezala "be open minded", Euskal Herritik kanpo dagoenak gehienetan harritu egingo zaitu eta.



MARIA

"Joder! Ze mina. Uste dut ubeldura atera zaidala, ea... Ah ez! Kamiseta altxatuta ikusten banau... etxera heltzean ikusiko dut. Bai, etxera heltzean. Nola izan naiteke horren baldarra, ateari ematea ere... Baina, zer diot? Ez, ni ez naiz baldarra, berak jo nau, berak! Maria ez zaitez garaitzen utzi, berak jo zaitu! Zerbait pentsatu behar dut, ezin dut honela segi. Agian Norari dei diezaioket. Diezaioket? Nik-hari-hura... bai, diezaioket. Ai, diezaioket... nire euskarako irakasleak entzungo balit... Eh, baina zertaz ari nintzen? Ah bai, Nora, gero deituko diot, hobe dut bai. Bada garaia. Eta hartuko ez balit? Agian Anek? Baina Anek bere haurrekin... lan asko du jadanik. Hobe Nora, gainera aspaldian ez dugu hitz egin... noiz izan zen azkena? O, bai. Sekulakoak entzun behar izan nituen. Leloa izango banintz bezala, nire ingurukoaz jabetzen ez naizela uste du, agian oraindik haserre dago... Baina maite nau, badakit telefonoa hartuko didala, maite nauelako, horregatik esan zizkidan hala-koak, maite nau... Baina Mikelek ere, ez da hori ulertzeko gai... Mikelek arazoak ditu... Horregatik joaten zaio eskua... Maite nau. Maite nau. Maite nau? Maite nau. Eta nik? Bueno Maria, noski baietz, zure mutila da. Nerea? Ez ez da inorena, berea soilik. Eta ni ez naiz bere neska. Pertsonak ez dute jabetzarik. Ni ez naiz Mike-lena. Ezta?... Pertsonak ez dute jabetzarik... edo... Joder! Begiratzan ari zait, Maria ez iezaiozu begiratu, ez, begiratu leihotik. Hori da, uau, zeren polita auzo hau, parke bat eta guzti du. Oraindik be-

gira al dut? Bai, kaka, aurreko semaforoa gorrian dago, aldatu zaitez, aldatu, aldatu aldatu, aldatu. Kaka berriz. Begira dut oraindik, zerbait esan behar dit, beno lasai, hartu arnas. Normaltasunez erantzun. Hartu... bota... hart-"

- Zer darabilzu buruan laztana?

"Harrapatu nau, baietz gero mugikorra kendu, edo are okerrago... Ez ezin liteke, ez berriz, itxaron! Ezin ditu pentsamenduak irakurri, zentzua galtzen hasi naiz. Baina orduan... Ene, begira dut, zeren zain dago? Kabroi halakoa, zer behar duk?! Ah egia, galdera bat egin dit e... zer esan du? Tontokeriak besterik ez ditu esaten aho horretatik, bere ezpain polit eta bigunetatik... Maria! Erantzun! Haserredu aurretik"

- Hortzetako pasta erostea ahaztu zaigu

"Lehorregia izan naiz, ohartu egingo da gezurra zela, ene hala baltz... ez, egia da, ez dugu hortzetako pastarik, ezin nau horregatik jipoitu, edo oihukatu, edo afaldu gabe utzi, ez ezin du, ezta? Berdea! Azkenean!"

Motorra berriz martxan jartzen da.

"Goazen etxera."

Izar Foroni Ruiz de Larrinaga



Izar Foroni
Ruiz de Larrinaga

Opor ahaztezinak

2015eko oporrak oso bereziak izan ziren. Familia guztia joan ginen; ama, aita, nire ahizpa Kattalin eta ni, Sara. New Yorkera joan ginen. Ni oso urduri nengoen eta nire ahizpak berriz, ez zuen joan nahi. Maletak egin eta aitona-amonak aireportura eramane behar gintuzten. Hegazkinean sartu eta Kattalinekin aurikularrak jarri zituen berehala eta mugikorrean hasi zen. Ama eta aita berriz hizketan eta ni aitona amonei agurtzen leihotik. Oharkabea bozgorailutik esan zuten iritsi ginela, bidaia oso motxa egin zitzaidan nahiz eta 10 orduko gorako bidaia izan.

Ni oso pozik atera nintzen iritsitakoan eta amaren aurpegiak aldiz kontra-koa adierazten zuen.

-Zer ama? Zer duzu? Zerbait ahaztu zaigu etxean? -galdetu zion Kattalinekin.

-Aireportua hau ez da New Yorkeko -esan zuen amak.

Aitak haxe erantzun zion:

-Goazen informazio bulegora.

-Hori da aita! -esan nion.

Korrika joan ginen oso urduri. Bulegoko neskak esan zigun Washingtonen geundela.

Haxe esan zuen amak:

-Baina ezin liteke, gu New Yorkera joan beharko ginen. Hau eromena!

-Tira ama lasai, ez urduritu, zerbait egingo dugu. New York ez da oso urruti egongo -erantzun zion Kattalinekin.

Aireportutik atera eta taxi bat hartu genuen Washingtonera joateko. Azkenean iritsi ginen, hotel baten bila hasi ginen bat aurkitu eta toki gabe. 8. hotelean bazen logela bat lauokoa, pentsio erdia hartu eta txartelarekin ordaindu genuen. Gelan sartu, maletak desegin eta mugikorrerretik erreserba atzera bota eta familiakoei gertatutakoa kontatu genien. Lehen egunean denda batzuk ikusi eta hoteleko langileei toki ezagunak ikusteko zein ziren galdetu genien. Afaltzera jaitsi ginen, bapo afaldu eta logelara joan ginen hurrengo egunetako planak egitera.

Goiza iritsi zen, denak esnatu, duxatu, jantzi, gosalduta eta etxe berezi bat ikustera joan ginen, oso polita zen eta haxe esan zuen Kattalinekin:

-Gosea dut, goazen hango jatetxe japoniar horretara.

-Bai, mesedez ama aita-esan nuen gustura.

Aitak hau erantzun zuen:

-Ongi da. Baina nik ez dut ordainduko, lasai txantxa zen. Tira goazen, ni ere gosetzen ari nahiz eta.

Denak jatetxera joan ginen. Aitari ez zitzaion asko gustatu jan zuena eta beste gauza arraroago bat eskatu zuen, baina hori gehiago gustatu zitzaion.

Arratsaldean Kattalinekin ikusi nahi zuen denda batera joan ginen. Gauza pila erosi nahi zituen baina amak ez zion utzi.

Afaldu eta nik bi lagun egin nituen, Stephanie eta Steve izenekoak, oso jatorrak ziren eta Ingalaterrako herri txiki batekoak ziren. Beraiekin jolas egin ondoren, logelara joan nintzen eta nik haxe esan nuen:

-Bihar etxe zuria ikustera joan nahi dut.

-Bai, ama aita oso ideia ona da. -esan zuen Kattalinekin.

Goizean goiz esnatu ginen eta etxe zuria ikustera joan ginen.

Halako batean Donald Trump ikusi nuen eta ama, aita eta Kattalini esan nien. Gure ondora etorri zen bere zaintzaileekin eta berarekin argazki bat atera genuen. Oso zirraragarria izan zen.

Etxe zuriaren bisita bukatu eta hotelera joan ginen. Ni oso triste nengoen hurrengo egunean etxera joan behar genuelako, eta nire lagunekin jolas ibili eta agurtu egin ginen.

Goiz-goiz esnatu, maleta egin, taxi bat hartu eta aireportura iritsi ginen. Hegazkinean sartu eta haxe esan nion Kattalini:

-Opor ahaztezina izan dira ezta?

-Bai horixe. -erantzun zidan berak.

Aurikularrak hartu eta mugikorrarekin hasi zen berriz. Baina oso ondo pasa genuen. Etxera iritsi ginenean lagun eta familia guztiari kontatu genien zer gertatu zitzaigun eta parrez eta algaran bukatu genituen 2015eko opor ahaztezinak.

Aizpea Elortza Elortza



Lirain Lurrindenda

Garagartza plaza, 1

20240 **Ordizia**

Tel: 943 805 327

San Inazio kalea, 12

20200 **Beasain**

Tel: 943 888 730

San Frantzisko paselekua, 8

20400 **Tolosa**

Tel: 943 650 239



Enara Aizpeolea Gereñu



Lur Elortza Altuna


DENBORAPASAK

AURKITU HIZKI ZOPA HONETAKO ZAZPI ANIMALIEN IZENAK.

Q	K	H	G	T	X	V	K	L	P	Ñ	M	N	E	H
A	P	U	R	X	Z	Q	S	J	G	R	U	E	D	A
L	O	M	E	R	K	U	R	I	O	D	U	P	T	S
P	Y	D	A	E	P	R	G	F	S	A	Y	T	B	A
S	Ñ	J	G	Q	Z	A	J	O	R	V	H	U	B	T
L	L	B	G	Y	F	N	Q	R	S	Ñ	P	N	J	R
L	H	B	C	X	Z	O	A	M	N	R	J	O	L	N
U	X	Z	O	P	Ñ	Z	F	Q	S	C	X	Z	S	O
R	J	I	L	L	I	H	R	L	Ñ	P	E	Q	A	F
R	L	P	Ñ	T	V	D	Q	S	A	Z	H	J	O	K
A	O	P	R	F	S	I	K	I	M	A	R	T	E	M
F	K	A	D	A	Q	W	E	X	V	B	J	G	D	E
Ñ	U	B	F	E	Z	J	U	P	I	T	E	R	K	K

ERANTZUNAK:

Merkurio, Artizarra, Lurra, Marte, Jupiter, Saturno, Urano, Neptuno





Eskerrik asko

Zerain Dezagun Fundazioari



Eskerrik asko

Zeraingo Udalari



Eskerrik asko

Basarte guraso elkarteari



Eskerrik asko

Liztormendi Elkarteari





Elikadura osasuntsu eta orekatua

Gure baserriko belardietan
betiko eran hazia

Eusko Label egiaztagiria duen
oilasko bakarra

Haragi fin, zaporetsu eta xamurra



Lumagorri S.L.

Zabalegi aldea

20214 ZERAIN (Gipuzkoa)

943 800 100 www.lumagorri.com